¿Y qué hay detrás de eso? En nuestra opinión, la pérdida del proyecto de ese navarrismo españolista y reaccionario que ha representado UPN, el comienzo de la descomposición del proyecto que ha representado UPN. Es preciso recordar que ese navarrismo que representa UPN fue el proyecto político que, a partir de la Transición, se puso en marcha para mantener la unión con España y los intereses económicos y clientelares de determinadas élites, es decir, para mantener eso que llamamos el “corrallito foral”. Y hoy en día, unido a la involución del Estado y a la legislatura del Cambio, ante ese nuevo navarrismo que está surgiendo y va construyéndose, hay una pérdida evidente de ese navarrismo reaccionario.

Podríamos decir aún más: ese proyecto político representado

por UPN ha sido exitoso en la medida en que le ha resultado útil al Estado, en la medida en que le resultaba útil para mantener tanto la fuerza que tenía en Nafarroa como un cierto distanciamiento o enfrentamiento con respecto a los territorios vascos. Sin embargo, en la medida en que otros agentes empezamos a gestionar las instituciones navarras y, por lo tanto, en lugar de mantener la unidad de España esas instituciones se dedican a crear un proyecto emancipador, al Estado español ya no le resultará útil el proyecto político representado por UPN. Por todo ello, en nuestra opinión, podríamos estar ante el final de ese navarrismo que han querido disfrazar de foralismo al objeto de garantizar la unidad de España. Porque ya no es ni un instrumento eficaz ni un pensamiento eficaz para mantener la unidad del Estado.

En definitiva, el modelo territorial del Estado ha fracasado y, ante esa situación, los poderes del Estado y las distintas caras de la derecha ven dos opciones: obligar a la sumisión a los territorios “desleales” o hacer desaparecer las migajas de autogobierno que hemos conocido. En esa situación, un UPN cada vez más nervioso que se está quedando sin proyecto y sin “misión” ha vuelto a elegir al PP como compañero de viaje. Y, por lo tanto, también a Ciudadanos y Vox. Eso explica el hecho de que acudiese a la movilización de Colón o de que en el Senado haya votado en el sentido de no transferir competencias a la CAV –apoyo a utilizar las transferencias como instrumento de castigo–. Esa nerviosa decisión de presentarse a las elecciones españolas, navarras y municipales junto con el PP puede ayudarle a superar el trance de los próximos comicios, pero a medio-largo plazo sitúa el proyecto de UPN al borde de la

muerte: por una parte, por el hecho de juntarse con un PP totalmente manchado por la corrupción; y, por otra parte, porque sus alianzas las ha construido con quienes quieren la recentralización y la desaparición del régimen foral vigente.

Al tiempo que estamos realizando esta entrevista, hemos conocido la noticia del acuerdo electoral entre UPN-PP-Ciudadanos para las próximas citas electorales. Esta noticia no hace sino corroborar la lectura que hacemos. Esta coalición representa el intento desesperado del UPN de Esparza por tratar retornar a las instituciones navarras. “Pan para hoy y hambre para mañana”. Es posible que esta coalición consiga su objetivo electoral (aglutinar el voto del régimen), pero en términos estratégicos supone la defunción del ideario de UPN, es decir, del españolismo ultraconservador disfrazado de foralismo. Esta situación nos presenta dos retos. El primero de ellos, inminente: tratar de consolidar y reforzar las mayorías favorables al cambio en las

SAKONEAN  
NAFARROA



## LOS DATOS DEL CAMBIO

Zabaleta y Romeo dicen que el Cambio ha mejorado las condiciones de vida materiales de la gente. Han dado un dato significativo: para cuando termine la legislatura, en abril de 2019, se habrán aprobado unos 100 proyectos de ley. A modo de ejemplo comparativo, en el parlamento de la CAV solo se han aprobado tres por ahora.

“Se han aprobado numerosas leyes de contenido social”. Aunque llevaría tiempo enumerarlas todas, han mencionado algunas: el esfuerzo que se está haciendo para compensar las pensiones más bajas, la Ley de Vivienda, la Ley de Régimen Local –“es un paso decisivo que se ha dado para renovar desde la horizontalidad las administraciones locales de Navarra y acercarlas a la ciudadanía”–, o la ley del Fuero Nuevo, mediante la cual las relaciones privadas entre la ciudadanía se han situado en coordenadas progresistas del siglo XXI.

Pero, más allá de todos esos proyectos de ley, “se han dado muchos pasos en el camino de la democracia y del reconocimiento de diferentes sectores que han estado silenciados y marginados”. “Por ejemplo, en el ámbito del reconocimiento de los derechos de las mujeres. La legislatura del Cambio ha garantizado que, por primera vez, las mujeres de Navarra tengamos el derecho real a abortar en Navarra. O el reconocimiento y el amparo legal de los colectivos LGTBI\*. Y también se le han abierto las puertas a la posibilidad de estudiar en euskara en toda la red pública de Navarra. Y también se han dado pasos para el reconocimiento de las personas asesinadas como consecuencia de la violencia de Estado.”

No obstante, “cabría decir que el cambio ha ido demasiado despacio en muchas cosas, y tendríamos razón”. Entre las carencias han mencionado la falta de reconocimiento institucional hacia los cientos de navarros y navarras que han sufrido tortura, así como la superación de la Ley del Vasconaje del 86. “También en fiscalidad, los pasos para conseguir una distribución más justa de la riqueza han sido más flojos de lo que hubiéramos querido”, han añadido.

próximas citas electorales. Ningún voto soberanista, de izquierdas y que esté por la democracia puede quedarse en casa; y el segundo reto, el de profundizar en el camino emprendido y transformar el proceso de cambio en un proceso pro-democracia, más derechos y soberanía para las gentes de Nafarroa.

### **¿A qué nos referimos cuando hablamos del Régimen en Nafarroa?**

El Régimen es un monstruo de muchas patas que ha hecho posible la subordinación de Nafarroa al Estado español y el dominio de las élites españolistas reaccionarias. Dicho de otro modo, ha sido y es un sistema político, jurídico, económico, social y cultural que tiene muchas y diferentes patas.

Por lo tanto, cuando en Nafarroa hablamos del Régimen no nos referimos únicamente a la supremacía institucional de UPN, que ha durado décadas. Nos parece fundamental aclarar eso. Si bien en los últimos años se han dado cambios de gobierno y la pérdida de poder institucional ha sido total, todavía estamos lejos de reemplazar completamente al Régimen, aunque tenemos que decir alto y claro que el Cambio ha sido un paso indispensable para fortalecer ese proceso de deconstrucción.

Consideramos importante subrayar que, durante décadas, en Nafarroa hemos conocido un Régimen excluyente, un Régimen de excepción, un Régimen que se construyó desde Madrid por la fuerza y que utilizó todas las formas de represión para impedir la ruptura democrática con el Régimen del 78. Se impuso el modelo de la Navarra foral y española, vendiéndonos que ser comunidad foral de España era beneficioso para Nafarroa, es decir, que era modelo de bienestar. Además, mientras presentaban

al abertzalismo como el gran enemigo de Nafarroa (“los vascos vienen a acabar con Navarra”), la defensa de Navarra estaba representada por un proyecto que garantizaba la unión con España.

A ojos de muchas y muchos navarros, el Régimen funcionaba, y lo apoyaron hasta que fue hegemónico, hasta hace casi una década. Ahora, el proceso de cambio y el poder institucional logrado han acelerado profundos cambios, hasta conseguir empezar a revertir esa relación de fuerzas hegemónica.

### **Analizar qué fuerza ha tenido y tiene el Régimen del 78 puede ayudar a entender cómo hemos llegado a este nuevo tiempo en Nafarroa. ¿Cómo lo veis?**

El Régimen del 78 está acabado. Como hemos dicho muchas veces, tres son las principales razones de ello: en primer lugar, la lucha que el movimiento vasco de liberación ha desarrollado durante largas décadas; en segundo lugar, la incapacidad del Estado español de ser viable ante la crisis financiera y económica; y, en tercer lugar, el golpe definitivo que le ha asestado el proceso independentista catalán.

No obstante, ha visualizado una nueva relación de fuerzas que no existía en 1978 en el Estado español, y esa relación de fuerzas ha abierto el camino para una contrarreforma basada en autoritarismo, en la recentralización, y también en el fascismo. Frente a ello, Euskal Herria (y concretamente Nafarroa) ha tomado la dirección contraria. En el caso de Nafarroa, el nuevo ciclo histórico abierto por el Cambio apunta en otra dirección. En este momento, el propio Amejoramiento Foral, que jamás fue votado por la sociedad navarra y representa la cara navarra del Régimen del 78, tiene tocadas su viabilidad y su legitimidad. Cerca de un 80% de la sociedad

**“En este momento, el propio Amejoramiento Foral, que jamás fue votado por la sociedad navarra y representa la cara navarra del Régimen del 78, tiene tocadas su viabilidad y su legitimidad. Cerca de un 80% de la sociedad navarra vería con buenos ojos que se le pregunte sobre el estatus que vive”**

**“En este contexto de involución y recentralización, la única y más eficaz manera de defender la identidad jurídica y política de Nafarroa es abordar el debate sobre su Estatus y analizar cómo se pueden regular de igual a igual las relaciones entre el Estado y Nafarroa”**

SAKONEAN  
NAFARROA



navarra vería con buenos ojos que se le pregunte sobre el estatus que vive. Cerca de un 60% de la sociedad navarra vería con buenos ojos que se abra el debate sobre ese nuevo estatus. Ahí tenemos el reto.

Para el independentismo vasco y para todas y todos los progresistas y demócratas de Nafarroa en general adquirirá enorme importancia que en los próximos años se aborde el debate sobre el Estatus de Nafarroa. Como hemos dicho, podemos estar en un contexto apropiado para emprender un nuevo camino basado en la democracia, los derechos sociales y la soberanía de Nafarroa, un camino que vaya en dirección contraria a las pulsiones que tienen fuerza en el Estado.

En este contexto de contrarreforma basada en la recentralización que se vive en el Estado español, hay quien piensa que tenemos que limitarnos a defender el autogobierno y las instituciones que actualmente tiene Nafarroa. Y, ante ello, pensamos que tenemos que decirle la verdad a la gente. Que, sin renunciar a defender ese autogobierno y esas instituciones, hoy por hoy no es posible asegurar ni siquiera esas migajas si las relaciones entre Nafarroa y el Estado no se definen de otra manera y de

igual a igual, pues, de lo contrario, el Estado medirá en función de sus intereses cuáles son o no son los desarrollos o posibilidades de ese autogobierno y esas instituciones. Como decíamos antes, ante el contexto de sumisión o desaparición, la única opción que nos queda es hacer nuestro propio camino.

Un ejemplo de ello lo tenemos en que el parlamento de Nafarroa es, por detrás del de Catalunya, el que más veces ha sido condicionado por el Tribunal Constitucional, que le ha anulado más de 17 leyes aprobadas democráticamente. Por lo tanto, en este contexto de involución y recentralización, la única y más eficaz manera de defender la identidad jurídica y política de Nafarroa es abordar de una vez el debate sobre su Estatus y analizar cómo se pueden regular de igual a igual las relaciones entre el Estado y Nafarroa. Tal y como nos señala la alianza “Navarra suma” (que algunos ya han denominado como la “Navarra sumisa”) el melón del Status de Nafarroa ya está abierto y la cuestión es en qué dirección se resuelve.

Así pues, la apuesta del soberanismo de izquierdas en Nafarroa es clara: pensamos que, ha llegado la hora de, más pronto que tarde, el debate sobre el estatus político y jurídico de Nafarroa. Tenemos que poner en marcha un nuevo proceso constituyente para alcanzar un nuevo Estatus jurídico y político en Nafarroa, ya que se trata de una cuestión determinante no sólo para aquellas que queremos una Euskal Herria libre sino para todas las que queremos desarrollar un proyecto democrático y social en nuestra tierra. Y, en esa dirección, tres son las claves fundamentales: en primer lugar, hay que preguntar a la sociedad navarra sobre ese estatus jurídico y político, vía referéndum; en

segundo lugar, tiene que servir para que la gente viva mejor, para profundizar en democracia y en derechos; y, en tercer lugar, no entendemos ese proceso constituyente en coordenadas de subordinación al Estado español.

Por lo tanto, para el soberanismo de izquierdas de Nafarroa resulta imprescindible convertir el proceso de cambio en proceso soberanista, y esa será una de las grandes prioridades de la siguiente etapa del Cambio, ya que mientras no abordemos el debate sobre el estatus jurídico y político el proceso de cambio no podrá avanzar, ni siquiera desde el punto de vista de la democracia y los derechos sociales.

**El Régimen difícilmente volverá tal y como era. Pero también pueden preverse escenarios más difíciles. Por ejemplo, si la extrema derecha se hace con el poder en Madrid e irrumpe en nuestras instituciones. ¿Cómo se le puede hacer frente desde Nafarroa a esa tendencia?**

Por desgracia, y llevamos tiempo diciéndolo, la tendencia de fondo que se percibe en el Estado español es la de la involución antidemocrática y la recentralización. Ante la crisis del Régimen del 78 y frente al malestar y la indignación crecientes que está provocando el neoliberalismo, cada vez están adquiriendo más fuerza las respuestas de corte reaccionario, con la extrema derecha en plena ofensiva. La ola ultraderechista ha llegado cuando el modelo territorial está en crisis, lo cual también repercute en Nafarroa.

Diferentes sectores han leído claramente que en Nafarroa estamos poniendo en jaque al Régimen del 78, y esa es la razón por la que han hablado directamente de la reconquista de Nafarroa. Dicho de otro modo, su objetivo es el regreso del Régimen.

La ola de nacionalismo



## AQUELLA ASFIXIANTE SITUACIÓN

Durante largas décadas, las instituciones dirigidas por las fuerzas del Régimen les han dado la espalda a los movimientos y las reivindicaciones populares. Es más, en Nafarroa han vivido en una situación de permanente represión y persecución. “Hasta hace poco, la celebración del Olentzero estaba prohibida en muchos pueblos y barrios, o el año anterior a la llegada del cambio al ayuntamiento de Iruñea la alcaldía de UPN prohibió el acto de homenaje a Nagore Laffage.” Han añadido que muchas veces las personas tenemos la “memoria corta”, pero apenas han pasado 6 años desde aquella situación.

Han puesto como ejemplo el movimiento de los gaztetxes, que en “Nafarroa tiene sólidas raíces”. Durante largas décadas, hasta el desalojo del gaztetxe Euskal Jai de Iruñea, los gaztetxes habían sido agentes populares, “importantes espacios para la cultura o la autoorganización, en un ambiente de represión y negación, junto con otros agentes: centros de trabajo, centros de enseñanza, asociaciones vecinales...”, como recuerda Zabaleta. Hoy en día, en Nafarroa hay más de 17 espacios gestionados directamente por la ciudadanía y la juventud, así como numerosos proyectos innovadores gestionados junto con los ayuntamientos. Por lo tanto, “el Cambio ha servido para provocar un nuevo florecimiento en la relación entre el tejido social y las instituciones, en los espacios autogestionados. Y ya no lo hacen dándose la espalda, sino construyendo nuevos horizontes para la expresión, la organización y el empoderamiento de la sociedad”.

**“Para el soberanismo de izquierdas de Nafarroa resulta imprescindible convertir el proceso de cambio en proceso soberanista”**







español la hemos conocido durante décadas de la mano de UPN y, por lo tanto, en Nafarroa hace ya mucho tiempo que empezamos a luchar contra el fascismo. En el contexto actual, pensamos que la manera más eficaz de levantar un dique de contención ante esta ola fascista es impedir que vuelva el Régimen y profundizar en la vía del Cambio. Tenemos claro que la batalla política se la tendremos que plantear desde las instituciones, mediante nuevas iniciativas en el ámbito social e impulsando el trabajo en común entre todos los sectores progresistas que estamos a favor de la libertad, los derechos humanos y los derechos sociales.

**Desde el punto de vista de la territorialidad, ¿qué se ha hecho bien y dónde hay que acertar?**

Actualmente, las condiciones para sacar adelante en Euskal Herria un proyecto de país son mejores que nunca, porque la reciente creación de la Mancomunidad Única en Ipar Euskal Herria y la puesta en marcha del proceso de cambio en Nafarroa por una parte y la relación de fuerzas que tenemos en la CAV por otra multiplican las posibilidades de elaborar por primera vez un proyecto cohesionado entre los territorios vascos y como país.

Por otra parte, tendríamos que subrayar que el desarrollo de la estrategia confederal hace que tengamos muchas más posibilidades de fortalecer ese proyecto unitario de toda Euskal Herria consiguiendo mayorías democráticas en cada ámbito territorial. La clave para ello será abrirle las puertas a una nueva etapa de Euskalerrigintza en el siglo XXI. Despertar en este pueblo un nuevo renacimiento social y cultural. Y, como hemos dicho, podríamos estar en unas condi-

ciones inmejorables para ello.

Pero, analizando la situación desde Nafarroa, también hay que hacer otra reflexión. Nafarroa ha sido cuestión de Estado para el Estado. Perpetuando la división territorial y manteniendo a Nafarroa enfrentada con el resto de los territorios vascos han buscado impedir un proyecto independentista vasco. Sin embargo, el proceso de cambio ha desactivado el seguir utilizando a Nafarroa como pretexto para poner en marcha un proyecto vasco soberano e independiente. Muy al contrario, el proceso de cambio que se ha abierto en Nafarroa multiplica las posibilidades para construir ese proyecto de país libre que hemos mencionado.

Seguramente por eso, aunque en otras coordenadas, en los próximos meses Nafarroa se va a convertir en cuestión de Estado, en el creciente proceso de recentralización y autoritarismo. Por esa razón, cuando las pulsiones fascistas que están cogiendo fuerza en el Estado hablan de reconquista, tienen a Nafarroa en el punto de mira.

Por lo tanto, ahí tenemos el desafío. Profundizando en el camino del Cambio y si conseguimos dar pasos decisivos para convertirlo en proceso soberanista de Nafarroa, la territorialidad, más que en un problema, se convertirá en el principal acicate para conseguir un proyecto libre para Euskal Herria. Sin ninguna duda, Nafarroa tendrá un papel de primer nivel y primera línea en ese camino.

SAKONEAN  
NAFARROA





**gazte zukguia**  
kolokibara  
norbanakotik

**bilbon batera**  
EGINGO DUGU!

**GAZTE ABUZTU!**  
OKER DABITZA...  
GEUREA DA GARAIPEÑA!

**NOS APALEAN**

**ERREGEA?**  
EZ, ESKERRIK ASKO

**ERIKO beti**  
**gazte!**

**GAZTE DANBADA**  
MARTXOAK 29-30 ETX. ARA NAIZ, GAZTE ON TOP AGINE

**NOS AGREDEN**

**JARRAI**  
KAS

**GAZEN**  
Indusentzia

**ERREGEA?**  
EZ, ESKERRIK ASKO  
QUE SE VAYA!  
KAS!!

**EXARRI ARA NAIZ**  
GAZTE ON TOP AGINE

**MANIFESTAZIOA**  
DAGOKIGUNA  
GEUREA

**M29 grebara!**

**EUROAGINDU**  
TRAFIKANTZUREN HERRIAREN ENTSUKA

**JARRAI**  
SUSPEKTSUEN GAITA  
KORTATU DANBA POLLA RECORDS

**ERREGEA?**  
EZ, ESKERRIK ASKO  
KAS!!

**EZ!**  
Estatu Polizialari  
LINTXAMENDU  
InFORMATIBOARI  
SaSi EpAIKETEi

**MANIFESTAZIOA**  
GAZTE ON TOP AGINE

**EUSKAL LEHENGAIJA**  
MATERIA PRIMA VASCA.  
JARRAI

**Gazteak suta**



# Jarrai eta gazte mugimenduaz: atzera begirako istorio pertsonal bat



Mikel Zubimendi. Jarraiko kide ohia.

**L**etron funtsa ez da Jarrai gazte erakundearen 40 urteen ibilbidearen gaineko azterketa sakon bat egitea, ezta euskal gazte mugimenduaren bilakaera historikoa eta etorkizun hurbil baten inguruan tesi bat finkatzea ere. Nire bizipen eta ahalmenetatik kanpo geratzen da guzti hori, gauzagaitz. Hori bai, norbera bere izerdi eta kontzientziaren jabe, Jarraiko militante bezala ikasitako irakaspenera batzuk papereratzea, gazte mugimenduaren inguruan izandako eztabaida haien inguruko oroitzak freskatzea, eta aurrera begirako bizpahiru arrasto marratzea, sikiera horretarako, asmoa badut. Asmo xumea, maila batean ortopedikoa. Nire ezinak aitortuz eta esperientziak gidari hartuz, ondoren horretan ahaleginduko naiz bada.

Hasteko, 1985. urtean Bergarako Jarraiko taldea hartuko dut abiapuntu. Orduan hasi ginen militatzen. Eta gogoan izan nahi dut, erantziezina diren

jantziak baitira niretzat, herrira Jarraiko lehen arduraduna azaldu zenekoa. Xabier Kalparsoro zumaiarra zen, apasionatua, tarteka kaotikoa, sortzailea beti, eusko gudaria, polizia espainolak hildakoa. Eskualdeko arduradun Susana Arregi txantxi-kuarra zen, Guardia Zibilak Irunberrin hildako eusko gudaria ere. Gure belaunaldikoek ez genuen asko ezagutu, baina haren ausentzia beti izan zen gure eskualdeko batzarretako presentzia. Gogora ekarri ditut Jarraiko militante gisa nire bizitza aztarnatu zuten bi kideon memoria lehen aitortzen bat egiteko: Gu ez ginen antolatu gazte problematika, bizi eredu alternatibo, gazte botere eta gisako akuiluek xaxatuta. Ez zen gazte langabezia edo etxebizitzaren arazoak, esate baterako, inporta ez zitzaigula, ez. Gure eskualdean gainera lana bazegoen, enpresak, kooperatibak, diru pixkat mugitzen zuen gazte jendeak, eta ez ziren problematika horiek, marjinatu



“Gatazka baten gori-gorian etorri ginen gazte erakundera, eta argi genuen nor ginen, noren alde geunden eta bizpahiru ideia horiekin aski genuen pentsamendu bat osatzen hasteko.”

sozialek, sektorialak ziren gaien txinparta izan guran konpromiso politikoaren sutea piztu zutenak.

Euskaldun ginen, abertzale, gure aberria askatzeko prest, presoak askatzeko, ETaren alde, oihukatzen genuen gogobihotz manifestan. Munduan zerua asaltatzeko ahalegin franko zeuden eta, beste toki askotan bezala, gurean ere, makina bat ziren beren urte gazteak sakrifikaizeko prest zeudenak, eta galdera berdinak mailukatzen gintuen: nondik ateratzen zuten indarra eta kuraia horretarako? Berun urteak ziren, gatazka baten gori-gorian etorri ginen gazte erakundera, eta argi genuen nor ginen, noren alde geunden eta bizpahiru ideia horiekin aski genuen pentsamendu bat osatzen hasteko, oinarriak simple baina garapenerako aukeraz beterikoak bait ziren, mundu ikuskera eman ziguten. Den-dena. Izan ginena, garena eta izango garena. Historia bat, errentabilizatu behar dena sekula ez amortizatutzat eman. Memoria bat, jarrera bat, biziborrokarako baliabideak.

Ez dut maite nostalgia. Aurkitzen diodan abantaila bakarra orduan garagardea merkeagoa zela da. Eta ez dut iragan denboren distirarekin inor itsutu bahi. Besteak beste, etorkizuneko argia handik ez datorrelako.

Baina jarraitu baino lehen bi elementu aipatu nahi nituzke. Bata, gazte mugimenduari begira, garai hartako abantaila konpetitiboa da. Hots, gehiago ginela, gazte jende askoz gehiago zegoela, populazioaren piramidea orekatuagoa zela, egun, piramidearen oinarria edadetuagoa dela. Ez dut esaten *baby boom* batetakoak izan ginela, ez baita



zehatz-zehatza hori esatea, baina bai, egun, orduan baino herri adinduagoa dugula, gazte gutxiago ikusten dela kaleetan eta horrek, dudik ez, inpaktu bat duela, bisibilitate gutxiago dago... Zenbakiek, hortaz, axola dute hemen. Bestalde, egungo gazteen bizitzen, lagungiro, pentsamendu eta abarren luzapen digitala aipatu nahi dut. Iraultza gertatu da hemen, bizitzaren dimentsio berria dago, lagunartea, zaletasunak, kontaktuak... sarritan, unibertso digitaallean ematen dira. Gure garaian ez zen halakorik. Kalezakurrago ginelakoan nago.

Jarrai antolakunde politikoa izan da. Politikaren ulermen bat, oinarri teorikoak, filosofikoak, hori guzti hori landu egiten zen. Euskal Herriko historia, marxismoaren fundamentuak, ETaren historia, KAS blokearen korpua, gazte problematiken inguruko posizio politikoak... Jarraira sartzeko horiek hartu egin behar ziren, aurremilitantzia mahaien formatuan, ahal zen neurrian barneratu, egokitu... Eta lehenago aipatu bezala, horrek eman zigan ainguratze bat, aurrerantzean tatuatuta eramango genituen gako edo funtsak.

Motz-motz, batzuk aipatzearen, Euskal Herria dugula abiapuntu eta helburu. Kontraesan printzipal eta bigarren mailakoak daudela, eta gure herrian, printzipaletan printzipalena gure nazioaren askapena dugula, klase borrokak Euskal Herrian hartzen duen forma. Hori dela gure estrategiaren iparra eta bigarren mailakoak direnak ezin direla azken bataila balira hartu. Ikasi genuen gazte mugimendua dela gure existentziaren arrazoia, baina gazte mugimenduak ez duela esanahi unibokoa, «askatasuna» edo «demokrazia» bezala, esanahia eman egin behar zaiola, zentzuz bete, norabide bat eskaini.

Izan ere, Jarrain euskal gazte mugimenduaren definizio oso ezberdinak izan dira, ia-ia bata eta bere aurkakoa erreferentzia baliagarria izan ditugu. Hots, koadro eta abangoardiazkoa zen gazte erakundearen orbitan grabitatzen zuen nazio mailako masazko gazte erakundeen konstelaziotik, eta hazi horren fruitu izan daitezke Ikasle Abertzaleak edo Kimuak (-haur mugimendurako nazio erakundea, nahiz eta akats politikoa izan zen, alegia, gazte edo langile mugimendua gauza bat dira, haur mugimendu batekin ezin bateragarriak, konparagarriak, haurrak daudelako tartean, ezin dira mugimendu bateko partaide irudikatu, pankarta baten atzean dabilen beste mugimendu baten pareko egin-), beren burua euskaldun, abertzale eta kolektiboki lan egiteko prest dauden gazte adierazpideen unibertsoaraino, hots, futbol animazio taldeetatik (Herri Norte, Indar Gorri, Peña Mujika...) eszena alternatiboan dabilta gazteen adierazpideraino. Gazte

mugimendua, definizioa baino, intuizio kontua da, lana serio eta barra-barra eginda unean uneko apustuak....

Jakina, gazte problematika hor dago, eta horri erantzun bat eman behar zaio, posizio bat landu, diskurtsoa, jarrera... jakinda ez daukala erabateko soluziorik, etengabeko lanketa bat baizik. Problematika bat dago problematika asko eta askotari-koak barnebiltzen dituen. Problematika horren aurrean, Jarraik bere erabilgarritasuna frogatzea, erakustea beti izan du helburu, ia-ia obsesio. Beti egon da eztabaidan, kezketan, beti izan genuen larrimin hori: ea gure ekintzaren frekuentzia ondo hartzen zen, ea ez ote ginen OMn emititzen ari eta gazte jendea FMn hartzaile.

Eta egiari egia zor, batzuetan hala izan zen. Gure garaian soldadutza, drogak eta irakaskuntza ziren gai "izarrak". Guk ez genuen bultzatu kontzientzia eragozpena, ezta intsumisioa bera ere. Guk genion euskal kulturak onartutako drogak gauza bat zirela, argi berdea izan zezakeena, eta oso bestelakoa, euskal kulturak onartzen ez zituenak, argi gorria merezi zutenak, aurkakotasun erabatekoa. Guk egin genuen ikasle koordinadoren alde, handik sortu zen gero ikasle Abertzaleak, eta garai batean oso aurkakoak ginen Ikasle Sindikatuaren aurrean, espainol ikusten genituelako, espainiartutako klase diskurtso baten jabe. Baina gure posizioak ez ziren beti bat etorri gazte mugimenduaren garapenarekin. Batzuetan bai, besteetan ez. Soldadutzan ez. Eta gure jarrera politikoa, «milia miliekin» bezala eza-

---

“Garai hartan  
gehiengoa ginen, gazte  
jende askoz gehiago  
zegoen, populazioaren  
piramidea  
orekatuagoa zen,  
egun, piramidearen  
oinarria edadetuagoa  
da. Zenbakiek, hortaz,  
axola dute hemen.”

gutu zena, aldatu genuen, kostata eta autokritika publikoa eginez. Gure kapital osoa jarri genuen gero insumisioaren borrokan eta, bistan da, altxatu zen olatu hartan gure ekarria ez zela nolana hikoia izan. Drogekin, beste horrenbeste. Gure posizio haiek ez ziren zutik mantentzen. Zorte gehiago izan genuen ikasle mugimendurekin.

Egun, noraezean dabilela gazte erakundea entzun izan dut. Krisian dagoela, nondik eta norantz jo ezin asmatuta. Ez dagokit niri hori hala den ala ez epaitzea. Soilik gogoratu nahi dut Jarrai ere diren eta ez diren krisietatik pasatuta dela. Krisi latz-latzak benetan. Ezagutu dugula gazte erakundea ia jenderik gabe, bere posizio sektorialak erabat kuestionatuta zituela, gazte mugimenduaren definizio zurrun bati eskuak lotuta. Pentsa, hain zen etxe barruan, ezker abertzalearen baitan, Jarraiekiko kuestionamendua handia, ze HBren gazteriak, alderdiaren gazte erakundearen proposamena eta lehen urratsak ezagutu genituela. Bere izen, logotipo eta abarrekin, etxe barrutik bertatik, piperrik ere ez zen ematen Jarrairen alde, amortizatutzat eman gintuzten. Eta betiko formulari lotu gintzaizkion: lana serio eta barra-barra eginez, buelta eman genion, gero aipatuko dudana bezala.

Krisia eta aldaketa dira existentziaren oinarritzko forma. Ezker abertzalean, estrategia politiko-militarra gidari zela, makina bat krisi, eta galanta askoak ezagututakoak gara. Bi aipatzearen, 89koa eta 92koa aipatuko ditut. Laurogeigarren hamar-

---

“Beti egon da eztabaidan, kezketan, beti izan genuen larrimin hori: ea gure ekintzaren frekuentzia ondo hartzen zen, ea ez ote ginen OMn emititzen ari eta gazte jendea FMn hartzaile.”

kadan negoziazioa zen giltza, negoziazioaz lortuko genuen lurraldetasuna, presoak askatzea, nazio estatutu berria.... eta hartara, arraultza guzti-guztiak jarri behar ziren otar horretan. Aljerreko negoziatioaren saioa eta gero, umezurtz geratu ginen, negoziatzera eseri genituen eta handik ez zen etorri mirakulurik. Gainera, hutsune sentsazio hori areagotzeko, 89an bertan Berlingo harresia erori zen, mundu ikuskera oso bat umezurtz utziz, emotiboki langileen edo komunismoaren aldeko borrokaren porrot historiko baten zapora mingotsa ekarriz. Jarrai larri ibili zen orduan. Eskerrak, Baltikoan, Balkanetan eta, independentziaren olatua altxatu eta Bai Independentziari taulan surfeatz aurrera egin genuela, esperantza guztiak 92ko urtean jarri. Orduan hartuko omen genuen berriz eta indarberiturik negoziatio mahaira doan autopista. Horretarako, Bartzelonako Olinpiadak eta Sevillako Expoa eta abarrek aukeren leihoa irekitzen omen zigun... baina kial! 92ko martxoan Bidarteko erorketa etorri zen eta, politikoki eta psikologikoki, gertatu ezin zitekeena gertatu zen, gordin-gordin. Hura zen krisia, hural!

Eta krisi betean, ausart, jarreraz, Jarraik V. Biltzarra egin zuen. Ordura arteko definizioak aldatu genituen, beldurrik gabe. Lehenago soldadutzaren inguruko posizio aldaketarekin eta Kimuak-en desagerpenarekin bezala, ez genuen beldurrik izan, abangoardiazko eta koadrozko erakunde marxista baten estatutuak aldatzeko, Jarraiekiko ortodoxiarekiko entronke edo ahaidetza ideologikoa lehenesten zuen gazte mugimenduaren inguruko posizioa ere aldatu genuen. Parametro argi eta funtsezkoak finkatu genituen (gazte erakunde euskalduna, abertzalea, kolektiboki lan egiten duena, ezker abertzalearen programa taktikoarekin bat datorren orori ateak irekiko dizkiona...), parametro berri horiek zedarrizten zuten joko-zelaian aritu nahi zuen gazte orori ateak ireki zizkien Jarraik, koadrozkoa zena masazkoa ere eginez, erakunde zena mugimendu, eta apurka-apurka lan egiten hasi ginen. Serio, jarreraz, intuizioz, kokildu barik, politika orokorrean eraginez, publikoki txupinazoak botatz, aparteko teorizazio edo txostengintzarik gabe.

Normalean ospatzen ez den urtemuga izan arren, XV. urtemuga ospatu genuen Etxarri-Aranatzen, Beratik Baigorriara lehen mendi martxa, aktualitate politikoan eragiten genuen, gerora Repsol edo Bilboko Portuaren buru, edo ETBko kazetari izan diren EGiko arduradunekin harreman "normala" genuen, nazioarteko lagunak eta musika taldeak ekartzen genituen, interesatzen zitzaizkigun Euskal Hintxak, Matxinada edo "Jarrai borrokarako gay" dinamika, gazteen formakuntzarako eskolak antolatzea, eta





“Jarrairen V. Biltzarrean ordura arteko definizioak aldatu genituen, beldurrik gabe. [...] Parametro argi eta funtsezkoak finkatu genituen: gazte erakunde euskalduna, abertzalea, kolektiboki lan egiten duena, ezker abertzalearen programa taktikoarekin bat egiten duen orori ateak irekiko dizkiona.”

bor-hesteak moztu ziren, gazte mugimenduan eragiteko gutxieneko baldintzak desagertu, eta, dudarik ez, bai gazte erakundearen garapenean eta baita gazte mugimenduaren geroan ere, lehen mailako faktore desestabilizatzailea izan zen.

Eta aurrera begira zer? Ilea urdinduegia dugu galdera horri erantzuteko. Ez dugu formula magikorik, eta balego, ez genuke ontzat hartu beharko. Egungo militante gazteei dagokie, egungo garai petral eta dislokatuotara egokituz, erantzunak topatzea. Behin eta berriz saiatu, porrota hemen eta porrota han dastatuz, arrakastatsua den ekuazioa finkatzea. Gomendioa libre, zera aipatuko nuke: iraganean ez dagoela etorkizunaren argia, Jarrairen historian ez dagoela XXI. mendeko gazte erakundearen oinarria, nostalgia barik aurrera begiratu eta apustua egin beharko dutela. Eta, jakina, apustua ez da errenta. Gazte mugimenduaren noranahiko eta nonahiko definizio baten xerka jardun baino, intuizioa lehenetsi, arriskatu, sortu dinamika eta polemika, bota pinue! Historia ezagutu, errentabilizatu, sekula ez amortizatu, baina ez lotu haren korapiloetara. Eskola zaharreko irakasgaiak jarraitu: kontraesan printzipala eta bigarren mailako kontraesanak ondo bereizi eta funtsezko funtsaren funtsean kontzentratu. Bazterreko edo esklusioan dauden errealitateak ezagutu, landu, baina ez egin

ispilu bakar. Antolatu gazteak bere zabalkunde eta askotarikotasunean, antolatu haien talentua, erre-kasto ezberdinei bezala eman bidea erreka handiari, euskal gazteen gogoari. Jarrera ausarta izan, hitz egin arerioekin, herri honetako arduradunekin, eta desafioak bota beldur barik. Batzuetan purrustak purrustategi izango dituzue, baina besteetan txupinazo ederrak aterako dira eta, badakizue, txinpart txiki horietatik pizten dira gazte belaunaldi osoak aztarnazten dituzten sute ikaragarriak.

Gauza askoz ere gehiago aipatuko nituzke. Baina bego horretan. Honaino, beraz, esan beharrekoak. Ongi esanak ongi gorde, ze gaizki esandakoak ez dute gordelekurik izango.

**Aberriari zentzu  
tragikoa kendu, eta  
bizi, aberria bizi beti!**





“Kale borrokarena estrategia politiko-militar baten argitara aztertu behar da, honen huts eta hutsuneak betetzetik, behar eta exijentziei erantzun bat ematetik, ez gazte problematikaren begietatik.”

“Iraganean ez dago etorkizunaren argia, Jarrairen historian ez dago XXI. mendeko gazte erakundearen oinarria. [...] Historia ezagutu, errentabilizatu, sekula ez amortizatu, baina ez lotu haren korapiloetara. Eskola zaharreko irakasgaiak jarraitu.”



# Nazio eraikuntzaren belaunaldia

GEROA  
GUREA  
DA



Goizeder Taberna.  
*Gazteriak eta Haikako kide ohia.*

zioen Gazteriaken lema batek. Harrotasun puntu horrekin sortu dira nere belaunaldia politikoki hezi duten gazte mugimenduak. Ez zen harrokeria, baina jendartean eta gure aitzinean genituen mota askotako botere guneetan eragiteko ikaragarriko grina baizik. Euskal gatazkan sartuak ziren Estatuak baino haratago, mundu mailako zapalkuntza ororen kontrako erresistentzia eraikitzeke xedea zuten. Erresistentzian sortu diren mugimenduak izanik ere, bestelako jendarte bat lortzeko gogoia zuten eta hori praktikara iragaten saiatzen ziren. Balore aurrerakoi horiekin jardun zuten Gazteriak mugimenduak Ipar Euskal Herrian eta ondotik Haikak eta Segik.

Harrotasun ber-berarekin nazio eraikuntzaren lehen harriak pausatu izanaren sentipena genuen. Kanbon 2000. urtean lehen aldikoz agertu zen Haika aitzindaria izan zen politikaren alorrean. Zazpi herrialdeetan burujabetza helburu zuen gazte mugimendua sortu zuten Gazteriakeko eta Jarraiko militanteek. Prozesu politiko baten ondorioa izan zen, baina istorio humano eder baten emaitza ere bai. Ekinean, hilabetez hilabete sortu ziren harremanek egin zuten lehen harri horien arteko morteroa. Ilusio asko zegoen orduan. Europako gazte mugimendurik esanguratsuena zela zioten orduan. Horren oinarri ideologikoak definitzeko Amaiur prozesua eraman zen, Ipar Euskal Herriko askorentzat lehen formakuntza politikoa izan zena. Euskal gatazkaren eta ezker abertzalearen historia zein oinarritzko kontzeptu ideologikoak barneratzea, Euskal Herri aske bat irudikatzea eta elkar ezagutzea ahalbidetu zituen.

### Lurraldetasuna lehenetasun

Bi urte lehenago, Lizarra-Garaziko akordioek eta ondoren Udalbiltzak erakutsi zuten bidea urratzeko gogoia zegoela, aitzineko belaunaldiek eragindako zatiketak eta ezkerreko abertzaleen arteko mesfidantza gainditzeko. Hegozentrismoaren mamua usatzeko eta Ipar Euskal Herrian Abertzaleen Batasunean gertatzen ari zen indarren barreiatzea saihesteko, mugimendu zabal eta sendo bat eratzeko asmoa zen. Ez zen arrunt desagertu mesfidantza, zauriak sakonak baitziren, eta mamua zombaitetan erreala. Baina, Kanbon, milaka pertsona bildu ziren eta sekula ez genuen holakorik ikusi. Zazpiak bat eginez, muga administratiboak gaindituz, Espainiako eta Frantziako Estatuak aitortzen ez zieten lortzen ahal zutela sinesten zuten. Azken batean, mugak burutik kenduz Euskal Herria eraikiko zutela, herrietan eta auzoetan antolatuz eta borrokatuz. Askapen prozesuan, lurraldetasuna lehenetasun bilakatu zen.

Bide hori hartzeko beharra aitzinetik ikusi zuten Gazterriak eta Jarraiko militanteek. Batzuk eta besteak bakoitzak antolatzen zituen ekimenetara joan ohi ziren. 2000. urtean, Jarraik 20 urte bete berri zituen eta Gazterriak bost. Urte bat lehenago European gaindi antolatu zuten biran piztu zen erakundetzaren pindarra. Munduaren aurrean euskal gazte mugimenduak ahots bakar bat izatea zuten helburu. Ordurako 2000 militante inguru ziren Hego Euskal Herrikoak, 200 bat Ipar Euskal Herrikoak. Gazterriak bere zonaldeko egoera sozial, ekonomiko eta politikoaren arabera ekimenak antolatu ohi zituen. Gehienek kanpora joan behar izaten genuen baxoa lortu eta, lehen lana ere askok hor gaindi ukaten zuten. Hortaz, «Gazterriak Euskal Herrian bizi nahi du» zuten lema nagusi Gazterriak. Ikasketetarako eta lana aurkitzeko herritik joan behar izateak eta turismoak eta lurralde horren erakargarritasunak eragindako etxebizitzaren prezioen emendatzeak arranguratzen zituen gazteak. Manifestaldi, eztabaida, kontzertu... ekimenez ekimen, Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Xiberoan saretu zen. Paraleloki, Euskal Herria Zuzenean festibala sortu zen, publiko berri eta zabalago batengana heltzeko eta Euskal Herri baten kontzientzia hedatzeko. Gazterriak militanteak ere horretan engaiatu eta formatu ziren, alternatibak eraikitzen.

### Euskal gatazkaren hirugarren belaunaldia

Nazio eraikuntzaren belaunaldi hori euskal gatazkaren hirugarren belaunaldia ere bada. Berak ere konfliktoa bere gordintasunean bizitu du. Aitzinekoek utzi mailetak ongi beteak bizkarrean harturik, haiek finkatu zituzten helburuak betetzen saiatu da. Eta jasan duena eman duenaren heinekoa izan da. 1990eko eta 2000ko hamarkadan errepresioa bortitza izan zen. Jada Gazterriaren garaian, justizia frantsesak tentsio maila igoarazi zuen, hamar hilabetez 80 bat gazte atxilotu baitzituen. Horieta-rik hamar bat preso sartu zituen. Baziren ekintza batzuegatik edo kale borrokarengatik jazartuak zirenak baina atxiloketa kopuruak argi utzi zuen militantzia beldurtzeko saiakera bat zela. Haikaren sorrerarekin batera, ekinbide politikoaren jazarpena oraindik handiagoa izan zen. Ilegalizazioen garaia hasi zen; Haikarena 2001ean. Euroagindua ondoren. Ipar Euskal Herriko hiru herritarrenak izan ziren lehenak, baina atxiloketengandik eta torturarengandik ihesi, Hego Euskal Herriko herritar asko etorri ziren Lapurdira eta haiei ere euroaginduak jarri zizkien Madridek. Frantziako Estatuak azken horrek marrazten zuen ildo segitzen zuen. Jazarpenak asko baldintzatu zuen militantzia eredu eta gotortu zuen gazte mugimendua, baina hala ere, horrek berritzeko eta egokitzeko gaitasun handia erakutsi zuela ez da gehiegi erratea. Segi izan zen ondoren gazte mugimenduaren izen berria. Hori ere legez-kanpo jarri zuten. Ipar Euskal Herria halabeharrez etorri ziren horiek hainbat arlotan eragina izan zuten, militatzen segitu baitzuten, baina batez ere euroagindu bakoitzean Espainiar Estatuaren politikarekiko kritikotasuna areagotzen baitzen. Hala, Aurore Martinena (Batasuna alderdiarekin lotua) iragan ondoren, Segiko militanteen kontrako euroaginduei aurre egiteko fronte bat sortu zen eta barnean Ipar Euskal Herriko hautetsi eta alderdi franko baziren. Urteetan etsai izan zirenak ere, Alderdi Komunista Frantsesa kasu, batu ziren mugimendura. Ondoren etorriko diren gertakariak pixkanaka baldintzak sortzen ari ziren.

GEROA  
GUREA  
DA





# Galdera zaharrei, jardunean, erantzun berriak bilatzen



Xabier Iraola. *Ernaiko kidea.*  
ARGAZKIAK: FOKU

**I**noiz ez da erraza garai bat edo belaunaldi bat izan dena deskribatzea. Pertsona beste bizipen dituen mugimendua garelako, pertsona beste ikuspegi. Ariketa hori are irristakorragoa da, aztertu beharreko garaia gertuan badago; oraindik borrokan diharduen gazte belaunaldiaren parte bazara. Perspektibaz aztertzeke beste denbora ez delako igaro oraindik; bizipenak, eztabaidak eta zauriak oraindik oso presente daudelako gudan.

Ia hutsetik; hutsune batetik abiatu zuen bidea gure belaunaldiak. Hamarkada bateko ilegalizazioaren itzala oraindik gainean genuela. Ezker Abertzalean hain garrantzitsua izan den transmisioa ia erabat apurtu ziguten garaian, hain zuzen. Transmisio falta diot, bai aurreko belaunaldiekiko apurketa handia eman zelako; bai errepresioaren ondorioz momentuko antolakundearen arteko harremanak oso ahulak zirelako. Bidea beraz ia bakardadean hasi genuen, umezurtz.

Baina, garai hartan bertan Euskal Herriaren askapen prozesuan etapa berri bat irekitzeko ametsa piztu zen ezker abertzalean. Urte horietan olatu bat altxatu baitzen: ETak borroka armatua behin betiko utziko zuela adierazi zuen, Bildu koalizioa sortu eta hauteskunde emaitza ikaragarriak lortu zituen, preso eta iheslari politikoen defentsan eta konponbidearen alde kalera atera ginen, krisi ekonomikoari aurre egiteko greba orokorrak egin genituen... Horrek guztiak sortutako ilusio eta bultzadaren er-

dian borrokara batu ginen belaunaldia gara.

Lehen eztabaidak egokitzapen estrategikoaren garaian bizi izan genituen. Ernai sortu zenerako egokitzapen hau egitea erabakita bazegoen ere, praktikan urte luzez luzatu ziren gurean egokitzapenari loturiko eztabaidak, kezkek eta kontraesanak. Gazte Antolakundeko kideok genuen sentsazioa zen dinamika politikoa sortzera baino gehiago egon girela etxe barruko trapu zikinak garbitzera; egoerak hori eskatzen baitzuen Eztabaiden zurrunbiloak itota.

Egokitzapen estrategikoak, ertz ugari izan zituen arren, zurrunbilo horren erdian gure belaunaldiak sutsuki bizi izan zuen borroka moldeen inguruko eztabaida. Ordura arte egin izan zenaren eta ordutik aurrera asma genezakenaren arteko tentsioan eman zen borroka moldeen auzia. Eztabaidak, sarri, borroka molde batek edo beste batek izan zezakeen zilegitasunaren inguruan korapilatzen ziren, molde horrek estratergiari edota ildo politikoari egiten zion ekarpenaren inguruan jardun beharrean. Epaiketa politikoan auziari Herri Harresiak sortuz emandako erantzunak lagundu zuen askatzen hein batean korapilo hau, diskurtsoa eta praktika modu koherentean uztartuta.

Feminismoa proiektu politikoan eta gure egunerokoan lehen lerrora ekartzea izan zen Ernairen has-tapenetako erabaki garrantzitsuenetakoa. Oraindik martxan dagoen barne prozesua egitea erabaki ge-

**“Transmisioa ia erabat apurtu zen, bai aurreko belaunaldiekiko apurketa handia eman zelako; bai errepresioaren ondorioz momentuko antolakundeen arteko harremanak oso ahulak zirelako.”**

**“Ipar Euskal Herriko eta Hego Euskal Herriko gazteok elkarlanean jarraitzen dugu eta horrela jarraituko dugu estrategia nazionala eta antolakunde nazionala elkarri eskutik emanda joan arte.”**

nuen, gure militantziak eta bizitzak ikuspegi feminista batetik aztertu eta eraldatzeko asmoz. Baina, zerbait aipatzekotan, gure emakumezko burkideek mugimendu feministan egindako lan oparoa aipatu nuke. Mugimendu feminista indartu eta euskal feminismoa berritzeko beraien indar osoa jarri baitute. Hori nahikoa ez eta gazte antolakundearen baitan erosoak ez diren hainbat eremu konkistatu eta gizonezkoongan eragiteko erantzunkizuna izan dute. Beraien lanaren ondorio da, beraz, gazte antolakundearen egindako barne iraultza.

Ernaik garaiko errealtate eta beharren arabera militantzia kultura sortzea ere badu erronka. Konpromiso maila ezberdinen inguruan asko teorizatu genuen. Aitortu behar dugu, oraindik eguneroko tentsioan bizi dugula norbanakoaren eta kolektiboaren beharrak uztartu nahi eta ezina. Dena dela, militante gisa hezi gara urte hauetan eta esan dezakegu Ernaiko militante guztiok barneratu dugula 24 orduz militante izatearen ideia. Gure bizitzako esparru guztietan egiten dugun orok asko duela politikotik eta beraz, horietan guztietan balore eraldatzailez jardun eta eragiteko ardura dugula.

Gazte problematika lantzea izan du xede beti ezker abertzaleko gazte antolakundeak. Garai bakoitzean modu eta molde ezberdinez. Gure apustu nagusia gazte problematikari bizi eredu berrien eraikuntzaren bidez erantzutea izan zen: gune autogestionatuak eraikiz, neska gazteok antolatu eta espazio askeak saiatuz, euskal kultura sustatzeko eremuak sortuz... Gazte mugimenduetan txinaurri bat gehiago izan gara. Horrela, guretzat esperientzia hauek guztiak, bizi guztian gure izatearen parte izango den herrigintza senaren sua pizteko lehen txinparta izan dira. Halaber, Ernaik dinamika propioak jarri ditu martxan gazte problematika jorrazteko. Burujabe/Burugabe kanpaina edota orain gutxi martxan jarri dugun Euskal Herrian Bizi dinamika. Azken honen bidez, konkretuki prekaritatearen aurkako borroka piztu asmoz.

Nazio ikuspegia izan da gazte antolalundearen historia zeharkatu duen beste korapilo bat. Baita gure garaian ere. Lurralde bakoitzeko errealtateak onartuta bi antolakunde sortu genituen, hasieratik harreman estua izan dugu eta elkarrekin hainbat dinamika eta barne bilkura egin ditugu. Ipar Euskal Herriko eta Hego Euskal Herriko gazteok elkarlanean jarraitzen dugu eta horrela jarraituko dugu estrategia nazionala eta antolakunde nazionala elkarri eskutik emanda joan arte.

ETAk borroka armatua behin betiko utzi ostean, ezker abertzaleak biziako garai gora beheratsuetan tokatu zaigu garena eta izan nahi duguna eraikitzea. Gazte antolakundearentzat ez da erraza izan testuinguru horretan sortzea. Behin eta berri jarri baita zalantzan gure izatea. Zer garen eta zer ez garen beste batzuek definitu ahalko balute bezala.

Kolpez kolpe zitzelkatzen da harria. Eta gu ere



**“Herentzia guztia garai eta errealitate honetara itzultzea dagokigu. Gazte bulkada berri eta sortzaileak izatea. Iraganetik baliagarri zaiguna gure egin eta sortu beharrekoak sortzea.”**

egin gara. Kanpotik esandakoetatik; baina, batez ere gure baitan zegoen guztian arakatuta. Gaur badakigu gazte antolakundeko militanteok zer garen eta zer egin nahi dugun. Ezker abertzalearen hipotesi estrategikoa gure egiten dugun gazteak gara. Akats eta garaipen guztiekin, ezker abertzalearen ondare historikoa gure egiten dugunak. Argi dugu Euskal Herrian klase borrokak nazio askapen forma hartzen duela eta askapen prozesuari egin diezaiokegun ekarpenik handiena, gure Herriari independentziaren ateak parez pare zabaltzea dela.

Oinordekotzan jaso ditugu horretarako izan genitzakeen armarik indartsuenak. 60 urte luzetan ezker abertzaleko militantziak landu eta bere egin dituen baloreak: eskuzabaltasuna, konpromisoa, erantzunkizuna eta maitasuna. Horietatik guztietatik egiten dugu borroka.

Herentzia hori guztia, ordea, garai eta errealitate honetara itzultzea dagokigu. Gazte bulkada berri

eta sortzaileak izatea. Iraganetik baliagarria zaiguna gure egin eta sortu beharrekoak sortzea. Askapen prozesua zabaldu eta aniztu behar dugu. Gazte belaunaldi berriekin konektatuko duten ikuspegi, borroka eta diskurtso berriak herri prozesu batean integratuz.

Amaitzeko, gazte antolakundeak betetzen duen funtzioa ongi deskribatzen duen ideia bat utzi nahi nuke. Duela aste gutxi, horrela zion Joseba Sarrionandiak NAIZI eskainitako elkarrizketa batean: “Oso beharrezkoa da pultsio utopikoa gurea lako kultura baztertu eta herri txiki zatituan.” Horixe da, hain zuzen ere, gazte antolatuon egiteko behinena: ezker abertzaleari, eta oro har Euskal Herriari, behin eta berriz utopiaz bustitako ortzimugak margotzen laguntzea.

Horretarako jaio ginen. 40 urteren ostean bagara. Ari gara. Eta bidean jarraitzen dugu.





# Ipar Euskal Herria 2040 biziko al da?

Azken urteetako bilakaera demografikoaren iturburuan bi prozesu antzeman daitezke: alde batetik turistifikazio politika, eta bestetik metropolizazioa. Aurreikuspenen arabera 2040 bitartean Ipar Euskal Herriko biztanleria %10 igo daiteke. Lapurdi kostaldea azpiegitura aldetik egun saturatua aurkitzen denez, balizko bilakaera demografikoak zer pentsatua ematen du.

Egoitz Urrutikoetxea. *Iratzar Fundazioko kidea.*





9

bassins de vie  
[Bayonne, Cambo-les-Bains, Hasparren, Mauléon Licharre, Saint-Jean-Pied-de-Port, Saint-Palais, Peyrehorade, Navarrenx]




295 970

habitants dans le Pays basque en 2012  
d'après les chiffres de l'Insee



4,8 %

du territoire est  
artificialisé en 2012



**“Uda betean, uztailean hasi eta abuztua bitartean, Lapurdi kostaldeko biztanle kopurua hirukoizten da. Azpiegitura guztiek gainezka egiten dute, ez baitaude hainbeste biztanle jasotzeko prestatuak.”**

#### Turistifikazio politikaren eragina

80 hamarkada bitartean Ipar Euskal Herriak biztanleak galdu baldin baditu, geroztik gorantzko joera nagusitzen joan da. Luzaz laborantza, arrantza, eta artisautza izan dira Lapurdi, Nafarroa Behera eta Zuberoako herritarren ogibideak. Eta bestelako lanpostuen gabeziak euskal herritarren migrazio mugimendu azkarra eragin zuen. Parise-ra edo inguruko hiriguneetara jotzen zuten lan bila, batez ere garaian oparoa zen funtzio publikoan aritzera.






60 hamarkada bukaeran Frantziako gobernuak Akitania

eskualdeko itsas bazterrean turismo eskaintza garatzeari ekin zion. MIACA izeneko plangintza-ren baitan, Lapurdi kostaldearen ekonomia turismoaren zerbitzuko antolatzea proposatzen zuten. Esate baterako, Gobernuak 30.000 turista gehiago jasotzeko azpiegiturak eraikitzeari ekin zion, Hendaiatik hasi eta Angeluko itsas bazterreraino. Ipar Euskal herriaren eta Lapurdiren garapena omen zuten helburu.

Geroztik ur asko pasa da zubi azpitik, eta errealitateak ilunetik gehiago du argitik baino. Uda betean, uztailean hasi eta Abuztua bitartean, Lapurdi



LES CARACTÉRISTIQUES DÉMOGRAPHIQUES DU PAYS BASQUE À L'HORIZON 2040 :  
VERS UNE POPULATION PLUS NOMBREUSE ET PLUS ÂGÉE

	2012	2022	2032	2042
 <b>Population totale</b>	288 725	300 674	312 135	322 838
 <b>Taux de croissance annuel moyen</b>	-0	,41 %	,37 %	,34 %
 <b>Âge médian</b>	45	48	50	51
 <b>Plus de 86 ans</b>	4,0 %	,3 %	8,7 %	11,3 %
 <b>Indice de vieillesse</b>	1,41	,7	22	,2

Sources : INSEE, Projections

Agence d'urbanisme Pyrénées Atlantiques, 2016

**“2040 urteari begira auresikuspenek gutxienez beste 30.000 biztanle gehiagoren etorrera iragartzen dute. [...] Ipar Euskal Herrira bizitzera etortzen diren herritarrak bertako kultura eta hizkuntzara lotzeko baliabiderik izan ezean, akulturazio prozesua itzulbiderik gabekoa bihurtu daiteke epe labur-ertainean.”**

kostaldeko biztanle kopurua hirukoizten da. Azpiegitura guztiak gainezka egiten dute, ez baitaude horrenbeste biztanle jasotzeko prestatuak. Lanari dagokionez, turistifikazioak ez du luzaroko lanpostu egonkor eta iraunkorrik ahalbidetu. Batez ere opor garaietarako lan eskaintza prekarioen sustatzaile izan da. Eta turistifikazio politikak eragin duen etxebizitzaren burbuila espekulatiboak urte osoan bertan bizi nahi duten herritarrak egunetik egunera euskal kostaldetik gero eta urrunago bidaltzen ditu.

Turistifikazio politikak ez du gazteriaren odol-hustea galara-

zi. Ikasketak jarraitzeko Euskal Herritik urrundu behar izan duten gazteen gehiengo zabalak Euskal Herritik kanpo aurkitu du bizibidea. Azken urteetan Ipar Euskal Herrira bizitzera etorri diren herritarrak adin baretetik gorakoak dira, erretiroan daudenak, edo kategoria sozial jakin batekoak. Izan ere, Lapurdi kostaldean bizitzeko eta etxe baten jabe egiteko aukera gutxi batzuen pribilegioa bihurtu da. Miarrantze, Donibane Lohizune edo Angeluko auzo batzuetan etxebizitza berrien prezioa metro karratuko 6000€-tik gorakoa da. Lapurdiko soldaten bataz-beste-

koarekin ezinezkoa da gaur egun etxebizitza baten jabe izatea. Eta alokairuzko etxeen eskeintzari dagokionez, urte osoko alokairurik apenas aurkitzen da, laguntza sozialekoak ez direnean behintzat.

Turismoak bere horretan ez du ahalbidetzen urte guztirako bizibidea. Aitzitik, tokiko bizimoduaren eta ekonomiaren desgaituraketa mailakatua eragiten jarraitzen du.

**Ipar Euskal Herriaren bilakaera demografikoa**



Le prix des logements  
bientôt inaccessible ?



Un réchauffement  
climatique entraînant  
une forte érosion littorale ?



Des transports bloqués sur  
un littoral trop densité ?



Une disparition des emplois  
productifs et agricoles au  
profit des services ?

### Metropolizazioa

Lurraldearen metropolizazioak turistifikazio politikak eragin bilakaera indartu besterik ez du egin. Administrazioaren zerbitzuak Lapurdi kostaldean kokatuak dira, Nafarroa Beherea eta Zuberoaren kaltetan. Horrek lan merkatuan eragiten du, lan eskaintza gehienak, izan administrazioan edo zerbitzuetan, kostaldean aurkitzen baitira.

Egun, Ipar Euskal Herriko biztanleriaren %58a Lapurdi kostaldean bizi da. Haatik, higiezinen espekulazioa dela eta, Lapurdi kostaldean lan egiten duten herritarrek ezin dute bertan bizi, eta Lapurdi barrualdeko herrietara jo behar izaten dute.

Euskal Elkargoaren sorrerak

ere izan du bere eragina Ipar Euskal Herriaren metropolizazio prozesuan. Ordurarte, Herri Elkargo bakoitzaren herri nagusian zerbitzu administratibo ezberdinak aurkitu zitezkeen. Orain berriz, zerbitzu gehienak Baionan aurkitzen dira. Herriko Etxeen eguneroko kudeaketan Euskal Elkargoaren sorrerak onurak ekarri baldin baditu, zerbitzu eta teknikari berriak eskainiz, herritarren begietara nagusi den sentipena bestelakoa da. Zerbitzuak gero eta urrutia- go aurkitzen dira, eta eskaintza desorekatua da erabat.

Zerbitzu publikoen eraisketa eta administrazioaren konzentrazioak Lapurdi kostaldearen periferian aurkitzen diren bizi eskualdeak zigortzen ditu. Lurraldeen arteko desoreka gero eta handiagoa gertatzen ari da. Ondorioa begien bistakoa da. Azken urteetan Zuberoak eta Behe Nafarroak biztanleak galdu dituzte. Lapurdik aldiz gora egin du nabarmen. Litekeena da datozen urteetan tendentzia indartzea, egiturazko aldaketarik gertatzen ez baldin bada behintzat. Eta egiturazko aldaketa horiek gauza daitezten bertako instituzioek oinarritzko eskuduntzak eskuratu beharko dituzte. Borondate politikoa ez baita aski izanen konzentrazio logikei aurre egin eta bestelako lurralde politika bat gauzatzeko.

### 2040rako aurreikuspenak

2011 eta 2016 bitartean Ipar Euskal Herriko biztanleriak nabarmen egin du gorantza, 20.000 biztanle gehiagorekin. Biztanle berri horiek dagoeneko saturaturik dagoen eremuan kokatu dira. Hortaz, Lapurdi barnekaldea eta kostaldea lotzen duten bideak gainezka daude. Garraio eta azpiegitura arazoak biderkatzen ari dira. Lapurdi

kostaldean adibidez, ur zikinak tratatzeko azpiegiturak ez daude horrenbeste biztanle jasotzeko dimentsionatuak.

Urteetan turistifikazioak Ipar Euskal Herriaren irudi idilikoa elikatu du. Promozio turistiko horrek Frantziako herritar andana Ipar Euskal Herrian bizitzeko hautua egitera eraman ditu. Horietarik asko erretiroan dira jada eta beraien bizi mailak Lapurdi kostaldean bizitzeko aukerak eskaintzen dizkie.

Hortaz, kontutan hartzekoa den beste faktore bat Ipar Euskal Herriko biztanlegoaren zahartzea da. Lapurdi kostaldean 60 urtetik gorakoak %30 inguru dira. Zuberoan aldiz litekeena da datozen urteetan %50eko langa gainditzea.

2040 urteari begira aurreikuspenek gutxienez beste 30.000 biztanle gehiagoren etorrera iragartzen dute. Gauzak daudean, ez dirudi biztanle berriek barrualdeko herriladeetara joko dutenik.

Gaur gaurkoz, Ipar Euskal Herriak ez du horrenbeste jende jasotzeko ahalmenik. Baina aldi berean, ez du biztanle gorakada regulatzeko baliabiderik eta eskumenik.

Orai arte zabaldu diren aurreikuspenak bere horretan gertatuko direnik baieztatzea ezinezkoa da. Ez da fatalitate bat, batez ere kontutan hartzen baldin badugu Ipar Euskal Herriak ez duela horrenbeste biztanle hain denbora tartean jasotzeko ahalmenik eta azpiegitura egokirik.

Biztanlegoaren bilakaerak bestelako arazo bat eragiten du. Ipar Euskal Herria bizitzera etortzen diren herritarrak bertako kultura eta hizkuntzara lotzeko baliabiderik izan ezean, akulturazio prozesua itzulbiderik gabekoa bihurtu daiteke epe labur-ertainean.

# 10 ANS D'ÉVOLUTION EN 10 CHIFFRES

**49 %**

de la superficie des communes littorales est artificialisée. Elle n'est que de 2 % pour les autres communes.

**26 %**

de la progression de l'artificialisation entre 2000 et 2012 s'est faite sur les communes littorales. Les 10 communes littorales qui représentent seulement 5,8 % de la superficie du Pays Basque cumulent 1/4 de l'artificialisation.

**58 %**

des habitants du Pays Basque vivent sur les communes du littoral.

**67 %**

des logements sont situés sur la côte. En 2012 le taux de logement sur la côte est plus fort que le taux de population, la côte basque étant le réceptacle du tourisme et de son corollaire, les résidences secondaires.

**4 167**

le nombre de logements vacants hors littoral au Pays basque. Le nombre de logements vacants est plus élevé hors du littoral et est relativement bas. Sur la côte cela traduit un blocage du marché. Au niveau français il est presque deux fois supérieur.

**55 %**

de la construction neuve se concentre sur la côte entre 2005 et 2015.

**+ 26 %**

l'augmentation des revenus par unité de consommation dans l'Aire Urbaine de Bayonne entre 2003 et 2011.

**8 ans**

le rapport entre le prix des maisons et le revenu des habitants. On considère qu'au regard des revenus annuels des ménages, le prix des maisons devrait représenter 5 ans de revenus au maximum pour qu'elles soient abordables. Aujourd'hui, les prix sont supérieurs de plus 50 % à une situation acceptable.

**31 %**

le taux des plus de 60 ans sur la Côte Basque en 2012. Le taux de plus de 60 ans attendu pour la France en 2060 est de 30 %.

**50 %**

le taux des plus de 60 ans à Tardets. Le vieillissement de la population dans le Pays Basque intérieur est très prononcé dans certaines communes faisant office de centralités.



# Hau ez da bizi nahi dugun mundua

Hau ez da bizi nahi dugun mundua... Hala hasten dira esku artera heldu zaizkidan errealitate dosi baten lehen lerroak, eta oihartzuna egin du halabeharrez nire baitan. Arrazoi. Hau ez da bizi nahi dudun mundua.



Irakurri jatorrizko artikulua hemen:

<https://lea-artibaietamutriku.hitza.eus/generoak/iritziak/395/>



Idoia Zengotitabengoa Laka. *Iratzar Fundazioko kidea.*

## Agerikoa da krisia nagusi dela gure aroan, krisiak edo zibilizazio krisia.

Bizitzaren zimur guztietara hedatzen ari den krisiez gabiltza feminismo(eta)tik, merkatuaren logika bizitza kolonizatzen ari den honetaz. Krisi garai normalizatu honetan nekeza da eustea, bizitzari eustea. Geroz eta zailagoa da (ongi) bizitzea. Geroz eta errazago zaio kapitalari, bizitza bera suntsituz esku gutxi batzuetan haztea. Merkatu kapitalistak zentroan jartzen dituen mundu ordena injustua da globalizatu den bakarra, gutxi batzuen zor pribatua sozializatzen duena zerbitzu publiko eta eskubide sozialak pribatizatzen dituen artean. Bizitza –kolektiboa– kapitalaren logikapean eta zerbitzura jarritz.

Hau ez da bizi nahi dugun mundua diogu feminismo(eta)tik. Hau ez da bizi ahal dugun mundu logika. Testuinguru honetan datoz aldarri ozenak: zer eta agerian jartzera errotiko aldaketa behar hori. Arnasa eman ez, luzera begirako beharrezko arnasa sakona. Ekonomiaren, politikaren, politika ekonomikoaren edo ekonomia politikoa-ren... finean, gizartearen eta bizitzaren beraren sakontasuna erakusten ari zai(zki)gu feminismoa(k) (eta ezkerak estrategia –esan ziguten behin egoki–). Makroekonomia eguneroko ogiaz lotuz, eguneroko bizirauteko estrategiak borroka molde eginez.

Eta ez da nolana hiko greba, praktikaz, moldez eta edukiz, greba bera (ber)definitu da, mundua begiratu ulertu eta ekiteko modu berri bat, kokaleku

politiko bat(zuk). Planto egingo dizkiegu lan ordainduei. Merkatuan sartu bagara (noizbait irten baldin bagara bederen) ere oraindik orain badelako lanaren banaketa sexuala, badelako prekaritatearen aurpegi feminizatua, soldaten arrakalak diraelako, badelako lanaren zentzu hertsiki produktibista, badelako kapitalaren eta merkatu logikapean definitutako lana bizitzaren arriskurako...errotiko aldaketa bat behar da.

Eta egingo dizkiegu planto ere lan ez ordainduei, hauek ere, egun oraindik gure bizkar dirautelako, lan hauen banaketa sexuala ere bere horretan delako, esplotazioa nagusi delako... Bakoitzak atera ditzala bere kontuak –eta hausnarketak–, zein zaintza-lan zirkuito behar ditut (dituzu) bizitzan egiten duzun hori posible izan dadin? Nork hartzen ditu lanak bere bizkar (patu sozial kasik jainkotiar eta naturalez ordaindu gabe) ni lanera joan ahal nadin/lagunekin/aspaldidanik ikusi nahi dudana filma hori ikustera/...? Denok –errepikatzen dut: denok– behar ditugu zaintza lanak, bizitza bera posible izateko. Elkarren beharra dugula aitortu behar dugu. Banatu beharko ditugu beraz, bizitzak sostengatzeko ardurak modu pertsonaletan, eta modu berean, berrantolaketa sozial batez jardun. Ezean, larriagotzen doa (ari gara?) lan karga hori, biziraupenerako estrategia emergentziazkoagoak beharko ditugu garatu, gure aurretik borrokatuz lortu zituzten ongi izate espazio horiek deuseztatzen dituzten politika ekonomikoak normalizatzen badira (non da euskal oasia?).

Eta egingo diogu planto kontsu(mis)-moari, kapitalari, kolonialismoari... finean botere antolaketa eta harreman sistema honi. Zer merkaturatzen da? Zein baldintzatan? Noren bizkar

eta esplotazioez? Noren (gain) asebetetze eta gozameneko?... Gure ingurunean sumatzen ditugun injustiziak, etsipen, min eta esplotazioek sistemarekiko den izaera dute eta elkar harremanduta daude ezinbestean: asko dute ikusteko etxeko lanen jardunaldi amaigabeak eta borondatearen kontrako lanaldi partzialen aurpegi feminizatuek, epaitegietan erasotzaileak babesten dituen normalitate zapaltzaileak eta mugarik gabeko logika akumulazio kapitalistak... Gutxi batzuen bizitza eustea, salbatzea edo/eta dolua egitea soilik zilegi izango den mundu ordena injustua.

Demokratizazio ariketa izugarria da feminismo(eta)tik dakarguna, burujabetzan jartzen du gakoa, norbere burujabetzan eta herriaren burujabetzan, bestelako gizarte bat eraikitza begira ordena iraultzea. Bit-artean, hemen (bait)gaude, bizitza bizigarri egin nahian, hamaika estrategia aurrera eramaten, siltasunean eta bakardadean batzuetan, kolektibizatuz eta minak elkar zainduz besteetan, politizatuz eta kalera ozen ateraz.


## Ez da ez historiaren amaiera, badago zer eraldatu.



Frantziako presidente Emmanuel Macron eta Estatu Batuetako presidente Donald Trump 2017ko uztailearen 14ko desfile militarrean. Arg: Chairman of the Joint Chiefs of Staff / CC-BY 2.0



# Iraultza Horia: kontratu sozialaren krisiaren adierazle



DESOREKA SOZIALEN

AREAGOTZEA ETA ZERBITZU

PUBLIKOEN ATZERAKADA



Argitxu Etxandi.

Jaka Horien protesta 2018ko azaroan Parisen.  
Arg: Kris Aus67 / CC-BY 2.0



**J**aka Horien mugimenduaren iturburuan dauden arrazoi edo faktoreen identifikazioa ez da gauza errexeta eta agian hein batean ezinezkoa da jakinez mugimendu oso heterogenoa dela, perfil oso ezberdinak biltzen dituena. Hori da, hain zuzen, mugimenduaren aberastasuna.

Halere, oinarrizko faktore gisa aipa daitezke, besteak beste, erosmen ahalaren jaistea eta zerga sistemak eragiten duen bidegabekeria. Erregai zergak piztu zuen afera lehenik, baina gero pixkanaka hedatzen joan da mugimendua, sektore sozial anitzengana hurbilduz. Bestalde, aipatu beharra da Jaka Horien perfil ezagunen artean

daudela haurrak bakarrik hezten dituzten emakumeak. Hots, desoreka sozio-ekonomikoak handitzeaz gain, genero bazterketa ere agerian uzten du mugimenduak.

Zerbitzu publikoen atzerakada ere aipa daiteke bestalde. Krisia sakontzen ari den bitartean hainbat atzerapauso ematen ari dira aspaldidanik lortuak ziren eskubide sozialetan. Hezkuntza lege berriak “irakasle merkeak” sortzen ditu<sup>1</sup>. Langabezia eskubideak zorrozki kontrolatzera doaz. Postetxeak ixten dituzte edo murrizketak egiten, Aldudeko ibarran berrikitan gertatu den bezala<sup>2</sup>. Garraio publikoaren eskaintza murriztu dute eta, hortaz,

langile asko egunero autoa hartzera behartuak dira. Hots, atzera goaz hainbat aurrerapen sozialetan.

### **Langileak beren eskubideez berjabetzeko garaia**

Ekologismoa, feminismoa, euskara, trantsizio ekologikoa, erre-fuxiatuak... Borrokak ez ditugu falta. Baina funtsean, esan daiteke familia politiko neo-liberal batek ere aldarrikapen berberak izan ditzakeela. Giza eskubideen diskurtsoak erraz zabaltzen dira baina, aldi berean, ez dago eskubideen piramida edo hierarkiarik<sup>3</sup>; eskubideak dira mila eta ez da haien artean lehentasunik finkatzen. Dena “funtsezko eskubide denean”, egiazki ezer ez

1 [https://www.liberation.fr/debats/2018/11/29/loi-pour-une-ecole-de-la-confiance-l-education-sous-contrrole\\_1694968](https://www.liberation.fr/debats/2018/11/29/loi-pour-une-ecole-de-la-confiance-l-education-sous-contrrole_1694968)

2 <https://www.francebleu.fr/infos/economie-social/pays-basque-fermeture-annoncee-de-l-unique-bureau-de-poste-de-la-vallee-des-aldudes-1548720459>

3 <https://www.erudit.org/fr/revues/rgd/2011-v41-n1-rgd01545/1026944ar.pdf>

Jaka Horien protesta 2018ko abenduan Parisen.  
Arg: Kris Aus67 / CC-BY 2.0



da funtsezko eskubide. Horrela, langileen eskubide sozialak hurtuak dira beste eskubide guztien artean.

Alta, langile klaseak ditu pairatzen bidegabekeria latzenak aberastasuna lanetik ez datorren garai honetan. Langileak du mehezimendu handiena eta, alta, hura da erabakietatik gehien baztertua den kategoria soziala. Izan ere, desberdintasun sozialen areagotzeak printzipio demokratikoa bera zalantzan jartzea eragiten du, boterearen zilegitasuna kolokan jartzen du.

Gaur egun, eliteen esku diren hedabide nagusiek dituzte borroken joko arauak finkatzen, beraien dute erabakitzen zer defendatu behar den eta zer ez. Orain

badirudi garrantzia gehiago eman nahi diotela klima aldaketaren aurkako mundu mailako Ostiraleko Grebari.

Mesfidantza hori nabaritzen da hedabideengan, baita alderdi eta sindikatu guztiengan ere. Herriar asko ez dira gehiago bitartekariengan fidatzen, eta ez dute gehiago ezker-eskuin dikotomia horretan sinisten. Teorikoki ezkerrean kokatzen diren alderdiak ere eliteen esku dira –Mélénchon kasu-, eta horrez gain, luzaz nuklearraren alde izan dira, hizkuntza gutxituen kontra eta trans-humanismoaren alde oraingoan. Hau da Estatu Frantsesean ezkerrean proposatzen duten «alternatiba». Horrenbestez,

Estatu Frantseseko ezker erradikalaren bukaera dela diote ahots batzuk.

Azken finean, Jaka Horiek agerian uzten dute herritarren eta boterearen arteko hitzarmenaren haustura, deskonfiantza. Beste gisan esanez, Estatua herritarrekin lotzen zuen kontratu soziala apurtu dela esan daiteke eta kontratua berritzeko garai aproposa izan daiteke<sup>4</sup>.

Jaka Horien mugimenduak esperantza sortzen du aldi berean, ikusgai uzten baitu badela aukera herritarrentzat eta langile klasearentzat antolatzeko eta batzeko, herritar asko prest daudela beren bizitzaz berejabetzeko.

4 [https://www.lemonde.fr/blog-mediateur/article/2018/12/18/le-monde-des-lecteurs-politique-pour-un-nouveau-contrat-social\\_5399169\\_5334984.html](https://www.lemonde.fr/blog-mediateur/article/2018/12/18/le-monde-des-lecteurs-politique-pour-un-nouveau-contrat-social_5399169_5334984.html)









# **Hipotesi estrategikoaren gaurkotzea Argalaren ekarpenetatik abiatuta**

---

---

**Euskal Askapen Mugimenduaren zutabe izan diren hainbat sintesi eta ideia bere testuinguruan aztertzeko gonbita da testu hau. Iraganera begiratzea, aurrera hobeto begiratzeko. Izan ere, duela ez hainbeste emandako aldaketa estrategikoak eta beste hainbat arrazoi dela medio, ezker abertzalearen zutabe ideologikoak direnak berriz bisitatzen behartuak gara. Gogorarazteko nola sortu den, nola garatu den, eta batez ere, horren arabera, nola eguneratu daitekeen, gaur egungo erronka eta galdera nagusiei erantzun ahal izateko.**

---

Andoni Olariaga. *Iratzar Fundazioko kidea.*



---

ARGAZKIAK: «Euskadi eta Askatasuna. Euskal Herria y la libertad» entziklopedia

**Euskal matxinadaren sorrera: intuizioak eta inspirazioak**

ENAMen sorreran funtsezkoa den auzi bat testuingurua jartzeko asmoa du testu honek: hain zuzen, auzi nazionalaren eta klase borrokaren arteko harreman dialektikoari. Laburtzeko, 50eko hamarkada bukaeran Euskal Herriko errealtaterako eredu baten bila dabil belaunaldi gazte bat, ezkertiarra eta euskaltzalea: Krutwig, Txilardegi, Madariaga, Etxebarrieta anaiak... Belaunaldi gazte horri hainbat galdera bururatzen zaizkio: Euskal Herriak aske izan nahi baldin badu, biolentzia iraultzailea beharrezkoa du, bai ala ez? Nola ulertu herria, nazioa, kultura,

lan harremanak? Nola uztartzen dira klase borroka, herrien arteko elkartasuna eta emantzipazio nazionala? Kolonia bat al da Euskal Herria? Galdera potoloak, literatura ugari eta mundu mailako inspirazio iturri askotari-koak.

Batez ere, bi auzien (nazionala eta soziala) uztarketaren dialektikak du pisu handiena. Garaiko testuingurua kontuan hartu behar da: ordura arte sozialismoa sektore espainolstek (PSOE, UGT eta PCE) defendatzen zuten batez ere (ANVren salbuespena kontuan hartuz), eta, bestetik, euskal nazionalismoa, EAJ, izatera katoliko, klase borrokaren ukatzaile, sozialismoaren kon-

trako eta nazioaren iruditeria arrazista batean oinarritzen da (hizkuntzan edo borondatean oinarritu ordez). Testuinguru horretan, eta horri guztiari erantzunez, sortzen da ENAM. 60ko hamarkadan ebatziko da, ETA-ren V. asanbladan, emantzipazio nazionalaren eta klase borrokaren dialektikaren uztarketa modua.

Ezker europarraren zati handi bat marxismo sobietikoaren influentzia handiarekin gorpuzten ari zen. Izan ere, marxismoaren uholde handi bat sartu zen, ez Europan garaian zabalduago zeuden marxismo kritiko eredukoak, sobietarragoak baizik. “Gure artean bazebilen gutxienez





Gazteluko abade etxea.  
V. Asanbladaren lehen zatia  
bertan egin zuen ETAK.





E.T.A. ren aldeko manifestazioa

**“Belaunaldi gazte horri hainbat galdera bururatzen zaizkio: Euskal Herriak aske izan nahi baldin badu, biolentzia iraultzailea beharrezkoa du, bai ala ez? Nola ulertu herria, nazioa, kultura, lan harremanak? Nola uztartzen dira klase borroka, herrien arteko elkartasuna eta emantzipazio nazionala? Kolonia bat al da Euskal Herria?”**

dozena bat erakunde marxista, denak total zientifikoak eta denak elkarren arerio (...): PSOE (1979rarte marxista ofizialki), PCE, PCE (m-l), FLP, PCEr, PTE, ORT, MCE. ETAKo eszizioetatik eratorriak: V. Batzarretik, ETA-Berri, EHko Komunistak, EMK; VI. Batzarretik, LKI (Trotskista), Celulas Rojas (Saioak)” (Txillardegi. Batasunaren pentsalaria. J. Azurmendiren hitzaurrea. 2019. Jakin). Mugimendu marxista hauetako batzuetan, abertzaletasuna burgeskeri ti-

pitzat jotzen zen, langileriaren batasunerako oztopo edo distrakzioa.

ENAMek beste bide bat ireki zuen, marxismoaren influentziarekin baina beste korrante batzuei aterik itxi gabe. Jarrairen 1992ko V. Biltzarrean (“Iragana irakasgai, oraina lanabes, etorkizuna ardatz”) ongi adierazten da bide horren izpiritua: askapen mugimendua ohitura marxistan sustraitua badago ere, ez duela marxismoaren “interpretazio hertsia eta mugiezina” egiten.

Haren izaera dialektikoaren balioa azpimarratuz, irakurketa estatikoetatik urruntzen da. «Guri marxismoak ekarpen haundiak egin, egiten dizkigu. Baina ez gaude beste filosofia batzuetara itxiak. Guztiz alde-rantziz, marxismo bera berritu, eta baliagarriak diren beste filosofien ekarpenak Euskal herrira eta gure estrategiara egokitu eta jorratzen ditugu» (17-18.). Marxe berak marxismoa ikusteko zuen erarekin bat egiten du horrek.

Arrazoi desberdinak daude au-





Juan Carlos de Borbón  
erregearen kargu-hartzea.

---

**“Izaera heterodoxo horri esker, intuizio eta metafora ederrak sortuko ditu askapen mugimenduak. Eta bi zutabe nagusi: lehena, independentzia eta sozialismoa txanpon beraren bi aldeak direla dioen ideia. Bigarrena, euskal langile herriaren formulazioa.”**

---

rrekoa azaltzeko: batetik, euskal gizartearen superbibentzia lanean instituzio euskaldunak exilioan egoteak –eta, beraz, belaunaldien arteko zubigintza ezin egiteak– nahikoa autonomia ahalbidetzen dio errenazimentu kultural euskaldunari. Bigarren, belaunaldi berriak laikoak, euskaltzaleak eta joera sozialekoak dira. Bada hirugarren faktore bat ere, garrantzitsua: eredu marxista dogmatiko bati jarraitu ordez, beste hainbat iturritatik edango du belaunaldi horrek. Hain

zuzen, hirugarren munduko askapen mugimenduen eragina aipagarria da. 1949ko Txinako iraultza, Kubako hamarkada gerillaria, 1954tik 1962ra Aljerreko independentzia gerra, Vietnameko gerra eta beste hainbat gertaera zein horiek utzitako literaturak inspirazio iturri nabarmenak izango dira euskal matxinadaren iruditeriaren konfiguraziorako. Horrez gain, aipatzekoa da 60ko hamarkadako mundu mailako loratze feministak ez zuela espero izatekoa den

eragina izan ENAMen sorreran, baina bidea ireki zuen aurrerago feminismoaren ardatza kontuan hartua izan zedin.

Izaera heterodoxo horri esker, intuizio eta metafora ederrak sortuko ditu askapen mugimenduak. Eta bi zutabe nagusi: lehena, independentzia eta sozialismoa txanpon beraren bi aldeak direla dioen ideia. Bigarrena, euskal langile herriaren formulazioa.



## Zergatik dira txanpon beraren bi aldeak independentzia eta sozialismoa?

Zergatik da emantzipazio nazionala klase borrokaren konkretzioa Euskal Herrian? Azpimarratu behar da, nazio arazoa alde aurretik emandako definizioak finkatuta baino, egoera konkretu batzuetatik abiatuta hartzen dute Marxek zein Leninek nazio auziarekiko jarrera bat edo bestea. Euskal Herrian, 60. Hamarkadan eztabaida bizienen motibo izango dira, 1970.ean zatiketak emango dira. Eztabaida hori puri-purian dagoela egin zen 1966an V. asanblada, ETA IV.eko Ofizina Politikoaren posizioak argitzeko, Txillardegik hala eskatuta.

Asanbladaren lehen zatian, *In-forme Txatarra* idatziko du Etxebarrieta nagusiak, ETA IV.aren Ofizina Politikoaren posizio estatistak kritikatzan. Espainiako langile klaseko fronteant sartu ordez, euskal herriko fronte propioa eratzearen alde mintzatu-tuko da. *Brankaren* 7. zenbakian gogoratzen zenez, aljeriarrek ez zuten fronte aljeriar-frantsesa sortu liberaziorako; irlandarrek ere ez anglo-irlandarra, ezta finlandiarrek finlandiar-errusiarra ere: «los países que tenían y han resuelto su problema nacional, han creado un Frente Nacional de Liberación». Hain zuzen, ETA IV.ak defendatzen zuen Euskal Herrian langileria dela soilik zapaldua, eta burgesia, orokorrean, zapaltzailea. Jose Luis Zalbidek *Hacia una estrategia revolucionaria vasca* testuan aurrekoaren kontra egin zuen. Bere iritzi, horrek Euskal Iraultza ukatzen du; izan ere, ez badago klase arteko batasunerako beharrik, euskal ezaugarri nazionalak eta klase arteko aliantzen esperientzia historikoek ez dute inongo zentzurik. Baina orduan euskal iraultzaz hitz egitea zentzuga-

bea litzateke, eta Euskal Herriko emantzipazio borroka iraultza espainolaren azpiatal bat litzateke (*Euskadi eta askatasuna*, 2.zk; Txalaparta, 1993: 65). Prozesu iraultzailea zapalduak dauden herri sektoreen hazkunde material eta izpiritualetan datza, eta horretarako, estatu zapaltzailea garaitu beharra dago. Alegia, estatuaren aparailu politiko, burokratiko eta militarrek zutik jarraitzen duen artean, klase dominanteak herria berdintzapalduko du. Beraz, esandakoak ez du zerikusirik klase batzuek besteen aldean boterea handitzearekin.

1970eko hamarkadaren hasieran zatiketa gertatu zen ETA VI. eta V. artean. ETA VI.aren helburua euskal estatua izanda ere, estatu-nazioaren baitako klase estrategia proposatzen zuen (Errusia Handiko eredu goitik behera aplikatuz, Argalak kritikatu), baita estatuko langileen batasuna ere, auzi nazionalak langile klasea zatitzen zuelako aitzakian. Argalaren ustez, estatu mailako iraultza sozialista bat sekula ezin da izan zapalkuntza nazionalaren irtenbidea. Independentziaren lorpenak estatu espainolaren porrota exigitzen du. Horrez gain, Espainiaren batasuna burgesia espainolarentzat bezain sakratua zen garaiko ezker espainiarrarentzat, eta Euskal Herriaren auzi nazionala enbarazua.

Askapen mugimenduaren inspirazio iturri handia izandako Frantz Fanonen arabera, erakuntza nazionala balio unibertsalen deskubrimenduari lotuta dago (“Artista eta idazle beltzen bigarren kongresua”, 1959). Askapen nazionalak ez dute beste nazioekiko urruntzea ekartzen; aitzitik, herriak historiaren eszenatokian presente egiten ditu, kontzientzia internazionalista piztuz. Argalak zioen bezala, he-

rrien arteko internazionalismoa sustatzeko modu onena baldintzak dauden lekuetan prozesu iraultzailea aurrera eramatea da. Gogoratu behar da prozesu iraultzaile handienek nazioa izan dutela ardatz: Kuban, Vietnamen, bigarren mundu gerrako emantzipazio borroketan eta beste hainbatetan. Alegia, ezker-iraultza sozialak emantzipazio prozesu nazionalekin lotu izan ditu historikoki.

Hortaz, nazionalismo iraultzailea aldarrikatuko du euskal askapen mugimenduak, non nazionalismoa internazionalismoaren forma bat den, eta independentzia, iraultzaren helburu estrategikoa. Klase borrokak, hortaz, nazio askapenaren forma hartzen du Euskal Herrian: txanpon beraren bi aldeak dira. Kontraesan nagusia hori bada, emantzipazio subjektua herritarra da. Txabi Etxebarrietak *Zutik*-en 44. zenbakian idatzitako “El socialismo vasco y el frente nacional” testuan, herri frontea egitearen kontra egon eta klase subjektua planteatzen dutenak gogor kritikatu ditu, «se colocan en una postura de “izquierdismo infantil”, desperdician inútilmente aliados provisionales y se crean gratuitamente enemigos definitivos desde ahora; así, al aumentar las divisiones en Euskadi, hacen el juego objetivamente (prescindiendo de intenciones) al imperialismo español y francés».

Hortaz, emantzipazio nazionala da korapilo ideologiko nagusia. Nazio askapen mugimenduen helburu estrategikoa independentzia eta sozialismoa da: «luchamos por la construcción de un Estado socialista vasco, unificado, independiente y euskaldun. Esta es una lucha, o va a ser una lucha muy larga, va a ser una lucha dura». Emantzipazio nazionala eta klase borroka,



---

**“Formulazio horrek (PTV) nolabait garaiko bi fenomenori erantzun nahi zien: nazionalismo tradizionalaren iruditeria etnizista gainditzea, eta, migrazio uholdeari herritartasuna aitortuz, borroka nazionalaren eta sozialaren subjektutzat hartzea euskal herrian bizi zen langileria.”**

---

hortaz, elkarrekin ulertu behar dira. Eta, beraz, «ETA opina que la lucha de clases en Euskadi, hoy día, cobra la forma de enfrentamiento entre la oligarquía monopolista (española) y el pueblo vasco, concepto este último que incluye a la clase trabajadora y al conjunto de capas o sectores sociales con intereses antimonopolistas de Euskadi» (*Txikia Komandoaren informea*, 1974). Klase borroka, hortaz, oligarkia monopolista espainolarren eta euskal herriaren arteko konfrontazioaren forma hartzen du, non zapalduen artean langile klasea eta sektore sozial burges antimonopolistak leudekeen.

#### **Euskal Langile Herria**

Nazio arazoari, hortaz, klase ikuspegitik begiratu behar zaio, eta lehen kontraesana hau du: «oligarkia monopolista espainolarren eta euskal herriaren arteko konfrontazioaren forma hartzen du. Euskal herria kontzeptuak langile klasea eta interes anti-monopolista duten Euskadiko sektore sozialak biltzen ditu» (Argala). Euskal burgesia nazionalak ez du gaitasunik independentziaren motorra izateko, eta autonomia eskatzera mugatzen da: hortaz, sektore herritarrak dira motorra. Baina helburuetara bidean, fronte nazionala eratu behar da. Aurrekoari

erantzunez, nolabait, helduko da Pueblo Trabajador Vascoren (EHL) formulazioa. Horrela, bi borroken uztarketa horri gorputz politikoa emango dion subjektua definituko da. Formulazio horrek nolabait garaiko bi fenomenori erantzun nahi zien: nazionalismo tradizionalaren iruditeria etnizista gainditzea, eta, migrazio uholdeari herritartasuna aitortuz, borroka nazionalaren eta sozialaren subjektutzat hartzea ere euskal herrian bizi zen langileria.

1965ean idazten da “Carta abierta de ETA a los intelectuales vascos”, eta *Zutik*-en zenbaki berezi batean topa daiteke





60.hamarkadan ETak mundu mailako hainbat erreferente nagusi izan zituen, hirugarren munduko borroka antikolonialeko ereduak, esaterako, Kuba, Arjel eta Vietnam. Argazkian Ernesto «Ché» Guevara eta Fidel Castro.



---

**“Egungo testuinguruan, Argalak egiten zuen azterketaren puzzlea oso baliagarria zaigu, gauden koiuntura politikoa kontuan hartuz eszenatoki posibleak aurreikusteko eta hegemonia kulturalaren azterketa zorrotza egiteko, indar harremanen analisi zintzoarekin batera: aurreko analisitik mugimendu taktikoa pentsatzea, helburu estrategikoak beti iparrorratz zein bidaide izanik.”**

---

lehenengoz. Euskal Herrian edo kanpoan jaiotako langileak berdin kontsideratzen dira euskal herritar. Erakundeak nazioaren berresanahitze bat egiten du horrela: gu langileak, xumeak, herritarrak, gu gara herria, «abizen luzeko kapitalista horiek baino», beren burua abertzaletzat jo baina herriaren bizkar aberasten direnak bainoago. (V. asanblada)

1967an, V. asanbladako bigarren zatian definizio aberatsagoarekin egingo dugu topo, non hiru korapilo askatu nahiko diren: herritartasunaren kontzepzioa (nor da euskal herritarra), naziotasunaren oinarri objektiboak (kultura eta hizkuntzari pisua emanez) eta strategiaren subjektua (euskal proletalgora buru gehi klase antimonopolistak). Herritartasunari dagokionez, euskal herritartasunean oligarkikoak ez ziren euskal klase guztiak sartzen ziren, burgesia nazionalarekin dudak agertuz. Egitasmo askatzailearen buru euskal proletalgora izango zen, eta euskal burgesia, aliatua. Aurrerago, V. asanbladaren bigarren zatian, 1967an jada, EHLk oligarkiak zapalduetako klase herrikoitzat definitzen zituen. Gogorarazi behar da, subjektuaren definizio horretan, Euskal Herriaren arerioa Espainiako eta

Frantziako estatuak direla, ez espainiar langileria. «En la realidad actual es la clase burguesa quien representa la totalidad de España y la que encarna sus destinos» (*Branka*, 1. zk; 1966).

Urteen poderioz, herritartasun subjektua –erradikala eta demokratikoa– izan da ezker abertzailean nagusitu den EHLren adiera. EHL emantzipazio sozial eta nazionalaren subjektutzat hartzen da, nazionalismo tradizionalaren iruditeria etnizista gaindituz, horien parte kontsideratuz «euskal Herrian eta dependentzia nazionalaren egoeran lan-indarra saltzen duen jende oro» (ETA VI, *Zutik* 51. zk). Intuizio horrekin, abilezia estrategiko handia erakutsi zuen testuinguru horretako erronei erantzuna emanez. Mugimendu historiko baten zutabea bilakatu zen, klase borrokaren eta emantzipazio nazionalaren uztarketa emateaz gain, subjektuaren definizio irekia egiten baitzuen.

#### **Argalaren analisia trantsizio garaian: herri frontearen beharra**

Erregimen frankistaren trantsizio bidean jarriko da Espainiako estatua 1970eko hamarkadatik aurrera. 1973an trantsizio orkestratua zailduko duen ekintza historiko

garrantzitsuenetako bat Carrero Blancoren aurkako ekintza armatua izango da. Horren kontrako kritikak aztertuko zituen Argalak: batetik, EAJren ustez (Leizaola exilioko Euskal Gobernuaren presidentearen ahotik), ekintza horiek egiten dituztenak ezin dira euskaldunak izan. Argalak gogoraraziko du Euskal Herria ez dela animalia espezie berez bakezalea: munduko beste herri guztiak bezalakoa da, pazifikoa horretarako baldintzak daudenean, eta alderantziz. Bestetik, PCEn kritika dago, ekintza hori masa borrokarentzako kaltegarria dela, langile klasearentzako kaltegarria; errepresioa areagotuko duela, eta abar. Argalak egiten duen irakurketa politikoa, berriz, hau da: momentu iraultzailea sortzeko ezinbestekoa da klase dominantearen barne kontraesanak azaleratzea, bere botere aparailuaz gain. Carreroren aurkako ekintzak (erregimenaren kontrako ekintza, finean), «aurreikusi bezala, errepresio anker eta basati bat eragingo du; batez ere, argi eta garbi kontrajarriko ditu Euskal Herri osoa eta gobernu zapaltzailea» (Sartre, *Burgosko prozesua*). Argalarentzat ez dago zalantzarik: Carreroren exekuzioa kolpe handia izan zen, eta Estatuan lo zeu-

**“Argalak zioen bezala, iraultza egitea —eta ez iraultzaile izatea— momentuko estruktura politiko, kultural, sozial eta ekonomikoak aldatzeko efikazena den hori egitea da.”**

**“Hasierara bueltatuz: posible ote da nazioa (identitatea, kultura...) eta lan-harremanak (klase borroka) bietako batera erreduzitzea? Herriak eta pertsonak beren lanaren produktu soiltzat jotzea absurdoa da, identitatea ere auzi materiala delako.”**

den elementu kontraesankorrak piztu zituen. Elementu horien pizkundeak efektu erradikalizatzailea izango du —eta, beraz, konfrontazioa—, eta polarizazioa areagotuko du.

Erregimenaren usteltze prozesu horretan, Argalak egiten duen aurreikuspena argia da: oligarkia espainolak erregimen faxista bat forma (eta ez eduki) demokratikoz jantzi nahi du, Europan eta Espainiako estatuan legitimitatea irabazi aldera. Horrez gain, Euskal Herria herri industrializatua izanik, krisi ekonomiko estatala gogorra izanik ere, Argalak aurreikusten du ezinezkoa dela inongo garai-  
penik lortzea datorren markoan posizio ilegal bat hartuz; alegia, «será preciso ocupar un lugar en las instituciones democráticas: partidos políticos, sindicatos...». Izan ere, demokrazia burgesak legitimitatea lortuko du, Europan zein jendartean, hauteskunde bidez. Hortaz, matxinada armatuaren posibilitatea baztertua geratzen da: indar harremana ez da aldekoa, %60 inguru dagoelako independentziaren kontra, eta alde dagoen ehuneko handiena ez dago prest prozesu iraultzaile batek dakartzan ondorioak (politiko-humanoak) asumitzeko, Argalaren esanetan.

Helburu estrategikoa, hortaz, momentuko irakurketa politikoari dagokion mugimendu taktikoren bati lotu beharra dago. Helburu horrekin sortuko da 1976an Koordinadora Abertzale Sozialista (euskal alderdien koordinadora tekniko bat izate-  
tik, ezker abertzale osoa bilduko duen alternatiba izatera pasa zen, maila taktiko zein estrategikoan hartu beharreko erabakiak hartzeko). KASen helburu estrategikoa Euskal Estatu aske, sozialista, bateratu eta euskalduna lortzea izanik, minimoen proposamen taktiko bat pro-

posatuko da. Horren helburua, independentzia eta sozialismora bidean, «supone un paso muy importante por cuanto también a partir de él se puede pensar en un camino un poco más suave, en un camino en que los enfrentamientos sean menos brutales, de que la violencia sea menos necesaria» (Argala).

1978an ETAK KAS alternatiba eguneratuko du, bost puntutan, elementu berritzaile bat sartuz; Estatuarekin akordio bat egiteko posibilitatea; alegia, su-etena ez da bere azken helburuekin lotzen, baizik eta helburu horiek bitarteko pazifikoeekin lortzeko baldintza minimo batzuekin. Azken finean, helburua argia da: herriaren gehiengoari alternatiba taktiko asimilagarri bat proposatzea, «que nos permita agrupar en torno a él un número de fuerzas suficientes como para obligar a la oligarquía a quedar definitivamente aislada y enfrentada al pueblo, abriendo el camino de una revolución popular o aceptar que la democracia burguesa se implante sobre unas bases que nos permitan consolidar un poder efectivo suficiente como para garantizarnos la posibilidad de dar nuevos e irreversibles (en la medida en que tal palabra tiene validez) pasos hacia el logro de una democracia popular» (Argala).

Helburu estrategikoetara bidean eta pauso taktikoak lagun, bi mailatan organizatu behar da herria, Argalaren iritziz: batetik, auzo, lantoki eta herri mugimenduetan, oro har; eta, bestetik, masa erakunde eta alderdietan. Lehenean soilik geratzea ez da aski: «este nivel de organización plantearlo a nivel inmediato y general puede resultar un poco utópico por ello creo que la gente que sea mas consciente del problema tiene que organizarse en los partidos o en los organis-



mos de masas que defienden ese tipo de organización y que defienden esos objetivos que antes he dicho de independencia, reunificación, socialismo y euskaldunización dentro de Euskadi» (Aizpurua, 2018: 467). Alderdi horrek, momentu bakoitzean, bere orientazio estrategikoa galdu gabe, taktika egokia aplikatzen jakin beharko du. «Es decir, que sepa mantenerse unido al pueblo sin sacrificar sus objetivos estratégicos (...) Nuestra opción es crear a partir de KAS un frente popular independentista...» (Aizpurua, 2018: 432).

Testuinguru horretan emango dira Xibertako elkarriketak; zehazki, 1977an, Angelun, eta Monzon eta Argalaren papera garrantzitsua izango da. Hain zuzen, herri fronte bat osatzen saiatuko dira, herri fronte komun bat artikulatzen, zabala eta interklasista. Argalak argi izango du, bide horretan, egoera ondo interpretatu eta helburua ondo zehaztu ondoren, hori lortzeko modu efikazena lortu behar

dela. «Lo primero que tenemos que tener claro es qué es lo que buscamos, el objetivo, y después, la manera más eficiente de conseguirlo. No se trata de dar la chapa, sino de hacer pensar al interlocutor. Al pensar es cuando avanzamos; cuando te das cuenta de que retroceder no significa siempre marcha atrás. Si retroceder supone corregir, eso es avanzar. Ya ves que casi todas las palabras tienen varias vertientes. El problema está en acertar donde nos situamos» (ibid. 260).

#### **Hipotesi estrategikoaren eta subjektuaren gaurkotzea**

Hasierara bueltatuz: posible ote da nazioa (identitatea, kultura...) eta lan-harremanak (klase borroka) bietako batera erreduzitzea? Herriak eta pertsonak beren lanaren produktu soiltzat jotzea absurdo da, identitatea ere auzi materiala delako. Ezin da, hortaz, harreman sozialen subjektua (gizakia) auresuposatu gabe klase arteko borrokaz

hitz egin. Lotura duen dialektika bat dago bien artean: hau da, gizakia ez du soilik lanak egiten, gizarteak, komunitateak ere egiten baitu: herriari, hizkuntzari, lanari, kulturari, generoari, tradizioei lotuta bizi da, guztiak ditu baldintzatzaile materialak.

Euskal auzia klase borrokaren eta herri zapalkuntzaren kointzidentziak azaltzen du. Izan ere, Espainiaren zein Frantziaren batasuna da euskal herriaren dominazio sistema zehatzaren giltzarrapoa, opresio mota desberdinak (patriarkala, gazteekikoa, nazionala, kulturala...) inposatzen diren markoa. Elite eta oligarkia finantzarioen klase proiektua aurrera eramateko ezinbesteko orubea da bi estatunazioen batasuna. Elite finantzarioen markoa estatu-nazioa izanik, marko horretan errotuta inposatzen du bere proiektu politiko nazional, patriarkal eta antidemokratikoa.

Hori dela eta, askotariko emantzipazio borrokek beste eszenatoki bat izan dezaten, ezinbestekoa



dute orube hori haustea. Leninek esan bezala (Eneko Compains, *Gaztetxes y lucha obrera. Sobre el naciente izquierdismo en la Euskal Herria de hoy*), iraganera lotzen gaituen katea begi ahulenetik hautsi behar baita: 78ko erregimenera lotzen gaituen katebegi ahulena nazio auzia da, eta erregimena hausteko bide eraginkorrena horixe da. Horregatik da emantzipazio nazionala askatu beharreko kontraesan nagusia. Gaur egungo testuinguruan, aldaketa estruktural hori posibilitatzen duen egitasmoa 78ko erregimenaren haustura da, independentzia nazionala. Kataluniako prozesuari begiratzeari baino ez dago aurrekoaz jabetzeko, bi zentzutan: bat, eliteen mugimenduak Espainiaren batasunari guztiz lotuta daude; eta bi, hala espainiar ezkerrentzat nola eskuinarentzat, espainiar batasuna sakrosantua da. «Antes una España roja, que rota», esaten zuen Calvo Sotelok lehen, eta «Podemos es la mejor garantía para la unidad de España» dio Pablo Iglesiasek egun.

Kontraesan printzipala nazionala izanik, subjektuak ere tamainakoa behar du. Eta auzi horretan askatu beharreko korapiloak askatzeko, Euskal Langile Herriaren kontzeptua, eta praktika, birpentsatu egin behar da. Batetik, burgesia nazionalaren auzia mahai gainean jarritz; bestetik, langile klasearen eta klaseen azterketa eguneratuz. Izan ere, lan mundua eta langileria aldatu egin dira XX. mende erdialdetik XXI.era: langile klase pertenezia ekoizpen eta ekonomia modu jakin bati lotuta zegoenean, klase borroka klasikoak definitzen zuen gatazka soziala, eta erraz antzematen ziren antagonismoaren lekuak. Paradigma post-fordistak langile-klasea eraldatu eta fragmentatu du, flexibilizazio eta preka-

rizazioarekin. Prekariatua, hain zuzen, langile klasearen desestruturazioaren ondorio da. Subjektu berria ez da hain organikoa egun, baizik eta territorialagoa, ideologikoagoa eta tematikoagoa. Hortik abiatuta pentsatu behar da subjektua, naziotasunaren, klasearen eta generoaren ardatzak kontuan hartuz, naziotasunaren, herritartasunaren eta askapen subjektuaren auziak txirikordatuz, desberdinak izan arren elkarri eragiten dioten auzi bezala. Euskal Herriko mugimendu feministak erakutsi du, bikain erakutsi ere, praktikan artikulazio hori posible dela.

Ezker abertzalearen hipotesi estrategikoak (independentzia, sozialismoa eta feminismoa) zera bilatzen du: botere ahalmena –formala eta materiala– herritarren esku izatea; eta hori oztopatzen duten baldintzatzaile material eta formalak deuseztatzea. Hortaz, hipotesi estrategikoaren bihotzean alde anitzeko burujabetza material eta formala egonik, txanpon beraren bi aldeak baino, forma poliedrikoa duen borroka elkarlotuak daude: lurraldea, generoa, demokrazia, bizitza, kultura, zaintza, gorputza... Batak besteari eragiten eta baldintzatzen dioten elementuak izanik, elkar inplikatu ulertu behar dira, gure kasuan, askatu beharreko korapilo nagusi bat dutelarik galga.

Egungo testuinguruan, Aргalak egiten zuen azterketaren puzzlea oso baliagarria zaigu, gauden koiuntura politikoa kontuan hartuz eszenatoki posibleak aurreikusteko eta hegemonia kulturalaren azterketa zortza egiteko, indar harremanen analisi zintzoarekin batera: aurreko analisitik mugimendu taktikoa pentsatzea, helburu estrategikoak beti iparrorratz zein bidaide izanik. Alvaro García Linerak dioen bezala, politika

ez da soilik indar harreman edo mobilizazio ahalmenaren kontua; konbentzimendua ere bada, artikulazioa, zentzu komunaren garaipena, garaiko ortzimuga komunitario baten borroka, azken finean. Horrekin batera, Aргalak zioen bezala, iraultza egitea —eta ez iraultzaile izatea— momentuko estruktura politiko, kultural, sozial eta ekonomikoak aldatzeko efikazena den hori egitea da.

*Statu quo*-a aldatzeko, ortzimuga berri hori marrazteko begiratzen dugu iraganera. Erronka berriei heltzeko, nondik gatozen argitu, iparrorratza buruan eta bihotzean dugula, aldatu dena kontuan hartuz, non gauden zintzoki analizatuz, nora eta nola joan nahi dugun argi izanik, inor engainatu gabe. Borroka moldeen uztarketa hori ez delako kapritxozko kontu bat, ezta auzi teoriko hutsa ere. Independentzia, sozialismoa eta feminismoa helburu duen aber-tzaletasuna, herritar askez osaturiko herri aske bat nahi duena, politikoki defendatzen eta egikaritzen asmatuko duguna, horixe delako gure erregaia.

Aizpurua, M. Argala. *Pensamiento en acción. Vida y escritos*. 2019. Editorial Astero.

Azurmendi, J. *Hizkuntza, etnia eta marxismoa*. 1971. Euskal Elkargoa.

Etxebarrieta & Rodríguez: *Borroka armatua eta kartzelak*. Lisipe. 2016.

Hainbat egilek: *La V asamblea*. 1966-1969. Txalaparta. 1993.

Odriozola, O. *Erakunde bat baino gehiago: ETA herri mugimendua gisa [1958-1968]*. Doktote tesia.

# Emakumearen emantzipazioa ENAMen 50-60. hamarkadako idatzietan

Nazionalismo askatzailearen teoria hegemoniko gehienek ez dituzte kontuan hartu genero harremanak [Onintza Odriozola, Erakunde bat baino gehiago: ETA herri mugimendu gisa [1958-1968]; EHU, 2016: 36]. Euskal Herrian, Ekinen eta ETAREN 50eko hamarkadako dokumentutan ez dago hausnarketa espliziturik emakumeen jardun abertzaleari buruz [217]. Abiapuntua Ekinek ateratako Moral de resistencia nacional koadernoan legoke, euskal etxeari buruzko gogoeta batean. 1960-1961 urteetan koaderno bera berrargitaratu zen Liburu Zurian, eta «euskaldunek emakumeari buruz izan duten ikuspegia» azaltzen da. Modu esplizituan aipatzen ditu emakumeak, eta beren rola espazio pribatura eta amatasunera mugatzen du berriro [Odriozola, 2016: 218]. Beraz, EAJren emakumeen irudi berbera erreproduzitzen du haserako ETAK: genero rol banaketa, eta genero estereotipo bereizketa.

Urte batzuk geroago, 60ko hamarkadaren hasieran, emakumeen eskubide eta borroken inguruko diskurtsoa ENAMen txertatzen da, pixkana eta modu apalean. 1964-1965ean Carta a los intelectuales vascos delakoan modu esplizituan aipatzen da, lehen aldiz [Etxebarrieta & Rodriguez, Borroka armatua eta kartzelak; Lisipe, 2016]. Horrek polemika handiak piztuko zituen. Eskubide eta aukera berdintasuna aipatzen ziren, baina etxeko paperaren betebeharra azpimarratzen zen. Aipatzekoa da lan erreproduktiboa ordaindua beharko litzatekeela esaten dela. Horrez gain, rol soziala berbera egozten die emazte eta ama gisa, baina, Odriozolak azpimarratzen duenez, «beste ikuspegi bat ematen die: etxeko esparrua lan esparru gisa definitzen baitu, balio ekonomikoa duen esparru gisa» [222]. Marxismoaren eragina nabari da familiaren zentzu politiko eta ekonomikoa azpimarratzean.

1965ean argitaratu zen La liberación de la mujer artikulua, eta inflexio puntutzat jo daiteke [ibid.]. «Lehen aldiz egin zuen ETAK emakumeen askapenari buruzko hausnarketa eta, besteak beste zera dio: ETAREN helburu sozialistetan emakumeen askapena eta sustapen soziala premiazko helburua dela [Zutik, 29; Hordago, 1979, 3, 493]» [ibid. 223]. Zapalketaren ondorioz jendarteak emakumea arazo politiko, ekonomikoa eta sozialetatik kanpo utzi izana salatuko du ETAK. Horrela, genero diskurtso berri baten agerpena emango da, apala izan arren, kontuan hartu beharrekoa.

«70eko hamarkadara arte itxaron behar dugu Europa Mendebaldeko mugimendu feministaren eraginez emakume aktibista batzuek ETA mugimenduaren barruan [gero ENAMen] erakunde feministak sortzen ikusteko. Eta, ildo berean, abertzale feministak Mujeres Trabajadoras Vascas kontzeptuarekin zapalketa hirukoitzaren [klase, genero eta nazio menderakuntzaren] identitate politikoa eraikitza iristeko [1998, 173 or.]» [Odriozola, 2016: 225].

## EL SOCIALISMO VASCO Y EL FRENTE NACIONAL

I. El socialismo es la solución a la enajenación que lleva consigo el régimen capitalista (y el neo-capitalista). Esta enajenación se puede observar en Euzkadi desde dos puntos de vista:

1998ko Ostiral Santuko Akordioari esker, Ipar Irlandak Europari gauzak beste era batera konponitzeko aukera bazegoela erakutsi zion, Elejabarrietaren esanetan: “Egoera horretan, gure proposamenak zentzudunak ziren. Guk ez genuen independentzia eskatzen, erabakitzeko eskubidea baizik. Gure helburuak plazaratzeko agertokia, azkenean jendeak erabakitzeko. Horrek Espainiari sekulako mina ematen zion, halako eztabaida publikoetan ez zuelako gure argumentuen kontra egiterik. Europako testuinguruan jendeak gure arrazoiak babesten zituelako”.

Elena Belokiren ustez, Europako Parlamentuan ordezkari izanda, zaila zen Euskal Herriaren izatea ukatzea: “Aldez aurretik,

beste jende bate ere egon da Europan, eta haiei esker egon gara gu ere eta bide bat egin ahal izan dugu. Txema Monterorekin lortu genuen ordezkari lehen aldiz”. Instituzioek espazioa, bitartekoak eta bozgorailua errazten dituztela uste du Belokik, nork bere diskurtsoa helarazteko. Fisikoki ezin zituzten ukatu, beraz, eta protagonista berezi bat ere bazuten: “Beste elementu garrantzitsu bat izan zen gizon hau [Koldo Gorostiaga] ez zela batere militante tipikoa, apurtzen zituen eskema guztiak”. Lehen egunetik egin zituen gauza esanguratsuak: *“Freedom for basque political prisoners* (Askatasuna euskal preso politikoentzat) zioen kamiseta bat eraman zuen. Eta lehen hitzak euskaraz egin zituen”. Bazekiten ez zirela itzuliak izango, eta ondoren ingelesean hitz egin zuen eta aurreantzean hala egingo zuela esan zuen.

### Nazioartea konponbidean inplikatzeko xede

Ezker abertzalearen misioa nazioarteko komunitatea Euskal Herriko konponbide prozesuan inplikatzeko izan da. Elejabarrietaren ustez, horretarako lan





handia egin zen urte haietan, baina gauza bitxiak ere gertatu ziren: “2001eko irailean, New Yorkeko atentatuak gertatu ziren, eta Europak erabili zuen zeukan testuinguru nazionala eta internazionala gure aurkako borroka areagotzeko”. Orduan utzi zituzten legez kanpo Bata-suna eta beste hainbat eragile, eta orduan sortu zituzten terroristen Europako zerrendak ere: “[Jose Maria] Aznarrek Europako kontseiluari eskatu zion gu zerrendan sartzeko, eta erantzun zioten ezin zutela Batasuna zerrendan jarri legezkoa bazen, eta horri emandako erantzuna izan zen ilegalizazioa”.

Egoera bitxia sortu zen, beraz: “Europako Parlamentuan geunden hirurok —Beloki, Elejabarrieta eta Gorostiaga—, handik jasotzen genuen soldata, eta aldi berean, Europako Parlamentua ari zen esaten terroristak ginela. Beraz, ordaintzen zigun lan hori egiteko”. Elejabarrietak uste du Europak Espainiari aukera eman ziola, segurtasun politiken bidez, Euskal Herriko egoera konpontzeko, Europak beste alde batera begiratzen zuen bitartean.

Edonola ere, Belokiren iritziz, lehenagokoa da Europaren sekurorizarako joera: “Beti esaten da 2001eko irailaren 11k jarri zuela mugarrria, baina 1980ko hamarkadaren amaieran, jadanik ari zen ikuspegi sekuritarioa hedatzen. Hor jarri zen martxan Graham Watsonen txostena, euroaginduen ingurukoa, abuzturako eginda zeukana. Garai horretan, jadanik, hasi ziren ehuntzen gaur egun ezagutzen dugun segurtasun politikaren oinarriak”. Bat egin du Gorostiagak Belokirekin: “1992an, Maastritcheko ituna sinatu zen. Eta itun horren funtsa da munduaren aldaketa. Mundua

aldatu zen 2001ean, New Yorkeko atentatuarekin, baina politikoki, Maastritche eman zuen munduaren aldaketa neoliberalismora. Gu 1999an sartu ginen eta ordurako aldaketa hori erabat errotuta zegoen”.

Ezker abertzaleak nazioartean egin duen lana, hala ere, ez da soilik instituzionala izan. Parlamentuan ordezkaritzarik izan ez duenean eta bertarako sarbidea ere debekatuta eduki dutenean ere, harremani eutsi dietela nabarmendu du Elejabarrietak: “Ni sartzen nintzen, botatzen ninduten... Josep Borrellek agindu zuen, hain justu, ni botatzea. Baina kanpoan bazegoen taberna bat Pub izena zuena, eta guk deitzen genuen *Publament* eta han egiten genituen bilera guztiak”. Parlamentuko lehendakariordea ere atera izan zen haiekin biltzera taberna hartara eta asko harritzen zen egoerarekin. Elejabarrietaren hitzetan, Brusela da munduan enbaxada eta korrespontsal gehien dauzkan hiria, “Whashingtonek baino gehiago”. Horiakin ere lantzen zuten harremana, baina garai haiek “gogorrak” ziren: “Kubako enbaxadorearen bulegoan sartu ginen behin Koldo eta biok eta diputatu espainiarrak guri “Terroristas!” oihuka hasi ziren”.

Izan ere, Lizarra-Garaziko akordioa hautsi ondorengo urteak ziren. Gorostiagak gogoan du parlamentuko eztabaida bat “oso gogorra” egin zitzaioela: “Mintzatu ziren EAJ, EA, CiU, Espainiako alderdi politiko guztiak, BNG... eta une batean, bukaeran, presidenteak esan zuen eztabaida amaitzen zela. Nik *question de orden* bat eskatu nuen, bederen, nire azalpena eman ahal izateko eta ez zidaten eman. Eta, ondoren, beste batek hitza hartu eta esan zuen banuela eskubidea.

**“1980ko hamarkadaren amaieran, jadanik ari zen ikuspegi sekuritarioa hedatzen. Hor jarri zen martxan Graham Watsonen txostena, euroaginduen ingurukoa, abuzturako eginda zeukana”.**

ELENA BELOKI

**“Ez gaituzte estatu paralelo gisa ikusten, baina badute gurekiko konfiantza maila bat beste era bateko eragileekiko izango ez luketena”.**

OIHANA ETXEBARRIETA

**“Hemendik hamar-hamabost urtera nazioarteko hainbat estatuk guri estatu independente garelaitortzeko, lana egiten orain hasi behar da”.**

GORKA ELEJABARRIETA



Garcia Margallo zegoen lehen lerroan eta hark esan zion niri baimenik ez emateko presidenteari. Arlette Laguillerrek hartu zuen hitza eta protesta egin zuen oso modu finean, baina aktan ez da ageri eta bideoan ere moztuta dago zati hori”. Ezkerreko eurodiputatu frantziarra da Laguiller, Lutte Ouvrierekoa, LO eta GUE taldeetan zegoena.

Hala ere, jende askoren elkar-tasuna ere sentitu dute. 2003an itxi zuten *Euskaldunon Egunkaria*, eta Gorostiagak eta konpainiak bazituzten ehunka ale beren bulegoan. Elejabarrietak gogoan du nola baliatu zituen horietako hainbat Miquel Mayol

ERCKo diputatuak: “Hartzen zuen ale bat hitza hartu behar zue-nerako eta asmatzen zuen gaia egunkariko berri batekin lotzen eta aldiro *Egunkaria* itxi zutela salatzen zuen”.

Europako estatuek, berriz, ikusi zuten epe ertain luzera Espainiak eta Aznarrek ez zutela segurtasun politika soilarekin beren helburua lortzen. Orduan, bestelako bideak aztertzen hasi ziren, Elejabarrietaren esanetan: “Urte horietan hasi zen nazioar-tearen esku hartze handiagoa gurean. Eta handik aurrera, gu ere beste modu batera lan egiten hasi ginen kanpoan”. Zehazki, lehentasunak markatu zituzten,

Belokiren arabera: “Hasieran, mundura zabaltzera gindoazen, ahalik eta harreman gehien egi-tera. Eta gero, markatu genituen lehentasunezko espazio batzuk. Eta lehentasunezko espazioa zen Europa, bertan ginelako”.

### **Herri atipikoa**

Ez ohiko herri bat ordezkatu behar izan dute European, Elejabarrietaren hitzetan: “Gu gara estaturik gabeko herria, nazio askapen mugimendua eta gatazka bat duena. Baina estrategia aldaketa egin genuenean, konturatu ginen eragin behar genuela sektore erabakigarrietan. Eta sektore horiek ez dira gure antzekoak, baina nire sentsazioa

da eboluzioa egon dela gurekiko pertzepzioan”. Hasiara batean, Europan euskal herritarrei buruz zituzten aurreiritziak oso lotuta zeudela fanatismoarekin eta borroka armatuaren kontuarekin, ezker marjinalarekin: “Gu eta gure proposamen zentzudunak geroz eta gehiago ezagutu ahala, aldaketa gertatu da. Horri gehituz gero espainolen gure aurkako jarrera gogora, gure aldeko pertzepzioa areagotu da”.

Oihana Etxebarrietaren ustez, “jende serioa” gara kanpokoen begietara: “Hitzekoa eta konfiantzazko jendea bezala hartzen gaituzte edonora heldu bezain pronto. Uste dut egindako lanaren emaitza dela”. Haren iritziz, nazioartera begira lan egiten denean beharrezkoa delako konfiantza eta sinesgarritasuna ematen duten espazioak sortzea: “Ez gaituzte estatu paralelo gisa ikusten, baina badute gurekiko konfiantza maila bat beste era bateko eragileekiko izango ez luketena”.

Horrez gain, Etxebarrietari iruditzen zaio entzutera ere irteten direla euskal herritarrak nazioartera: “Nazioartean egin den lan handi bat izan dela gure naziotik kanpo gertatzen ari ziren kontuak Euskal Herrira ekartzea. Hondurasetik itzuli berri naiz eta eskatzen ziguten kontueta-ko bat zen haietaz ez ahazteko: <<Mundua ez dadila ahaztu hemen zer gertatzen ari den>>”. 2009ko kolpearen ondoren, inoiz inork Hondurasi buruz zerbait esan badu hango kontuak hona ekartzeko, horiek gu izan gara. Eta Hondurasen aurkezten garen une berean badakite nor garen, ezker abertzalea oso ongi irudikatuta dago”.

Gorostiagaren iritziz, ezinbestekoa da nazioarteko aitortza

lortzeko lan egitea, baina kostatzen da horrekiko konbentzimendua lortzea: “Gure jendeak ez zuen ikusten lan horren garrantzia, ordezkaritza bat bazegoela bazekiten, zerbait egiten zuela, gehiagorik ez. Nik proposatu nuen etor zitezela Arnaldo [Otegi] eta gainontzekoak eta txosten bat egin genuen haientzat. Ikusi zutenean gure lana, harrিতта geratu ziren. Euskal Herrian zeudenek ez zuten astirik gauzak aztertzeke. Kanpoan, aldiz, bagenuen giro lasaiagoa solasaldiak egiteko eta gauzak aztertzeke”.

Lan erritmoak “oso ezberdinak” baitira Euskal Herrian eta nazioartean, Elejabarrietaren ustez: “Nazioartean egiten den lanak ez du balio botoak irabazteko. Eta ez da epe laburrera emaitzak ematen dituen lana”. Horregatik, joko mahaian kolpea jo eta lan egiteko modua bera aldatzea erabaki dute: “Atzeratu egin dugu estatuarekin genuen bataila, gu egoera hobean egongo garen unera. Ez dirudi Espainiak onartuko duenik Euskal Herriaren erabakitzeko eskubidea eta hori horrela bada, bataila hori etorriko da gerora. Irabazteko, gutxienez, bi gauza behar ditugu: lehena, erdia baino gehiagoren babesa lortzea, eta, bigarrena, nazioarteko aitortza. Hemendik hamar-hamabost urtera nazioarteko hainbat estatuk guri estatu independente garelaitortzeko, lana egiten orain hasi behar da”.

Hain justu, euskal herritarrez eraikitako mitoak deuseztatzeke baliatu behar dira harremanak, Etxebarrietaren iritziz: “Aurrez aurrekoan, jendearekin gauzak beste era batera ikusten dira. Mito asko egon direlako eta horiek berehala apurtzen direlako, atek irekitzea errazagoa da. Gu

**“Kontraesanez betetako espazio horretara joaten gara ahalik eta etsai gutxien izateko, Euskal Herriaren aurkako ahalik eta oposizio gutxien sortzeko”.**

ELENA BELOKI

**“Europako Batasunaren ereduarekin oso kritikoak gara, baina horrek ez du kentzen europar herrien arteko kooperazioa eta elkarlana modu positiboan ere uler daitekeela”.**

GORKA ELEJABARRIETA





oraindik eraikuntzan dagoen herrialde bat gara, eta garrantzitsua da erakustea herri bezalagure berezitasunak eta funtzionatzeko modua baditugula, eta horiek estatu izaera ematen digutela”.

Herri atipikoa ordezkatzeari gain, Europako Batasunarekiko kritikoa izatea dagokio ezker abertzaleari, kontraesanak kudeatzea, Belokiren hitzetan: “Ezker abertzaleak ez du inon esan beharrik Europako Batasuneko proiektu soziopolitikoaren oso aurkakoak garela. Maastrichteko Ituna Espainiako Kongresuan bozkatu zenean, indar bakarra izan ginen aurka egiten”. Baina uste du bereiztu behar direla Europako Batasuneko instituzioak eta Europako politika: “Kontraesanez betetako espazio horretara joaten gara ahalik eta etsai gutxien izateko, Euskal Herriaren aurkako ahalik eta oposizio gutxien sortzeko”.

Elejabarrietaren iritzi, berriz, Europako Parlamentuarekiko kritiko izatea bateragarria da gainerako herriein egin daiteken elkarlanarekin: “Euskal Herria Europan dago, gehiago edo gutxiago gustatu arren. Gainera, Espainiaran eta Frantziaren bidez, Europako Batasunean ere badago. Beraz, etorkizun batean, Euskal Herriak erabaki beharko du zein motatako harremana nahi duen Europarekin eta Europako Batasunarekin. Europako Batasunaren ereduarekin oso kritikoak gara, baina horrek ez du kentzen europar herrien arteko kooperazioa eta elkarlana modu positiboan ere uler daitekeela”.

# Independentzia eta nazioarte



Urko Aiertza.  
*Senatari ohia eta abokatua.*

Katalunian 2017ko urriaren 1eko erreferendumaren bezperetan eta ondorenetan bolo-bolo ibili ginen herritarrok nazioarteko komunitateak hartu zezakeen jarreraz espekulatzen. Jakina baita independentzia gauzatzeko ezinbestekoa dela nazioarteko komunitatearen aitortza eta batez ere gainontzeko Estatuaren aitortza. Zein dira ikuspuntu politikotik eta juridikotik halako kasuetan baldintzak? Galdera zuzenagoa eta konkretuagoa ere egin genezake: ze aukera ditu Euskal Herriak nazioarteko jurisprudentziaren ikuspuntutik independentzia lortzeko?



Pristinan [Kosovo] independentzia aldarrikapena gogora arazten duen "Newborn" izeneko instalazioa. 2013an ezarri zen bertan. Arg: Wikimedia Commons



# “Europak estatuen Europa izaten jarraitu du. Eta ez dirudi hori aldatuko denik.”

## 1.

### NAZIOARTEA ZEIN INDEPENDENTZIA KONTZEPTUAK XXI. MENDEAN ETA HAUEN IZAERA LAUSOTUA.

Nazioartea zein Independentziaz mintzatzea tokatzen zaigun unetik argi izan beharko genuke aldakorrek eta etengabeko eboluzio batean doazen kontzeptuak direla. Errealitate berriei egokitzen eta aldatzen doazen kontzeptuak ditugu. Sinplea da, nazioartea egun eta XVIII. mendean ez da bera, ez eta Estatuak ere, eta ondorioz independentzia kontzeptua eredu desberdina da. Baina biak egon, badira oraindik.

## 1.A

### NAZIOARTEA EGUN:

Fukuyamak historia amaitu zela zioen aipu esanguratsutik hona, gauza asko aldatu dira munduan. Ikuspegi geopolitiko klasiko batetik, baina baita ere azaldu diren, eta nazioartean eragina duten, subjektu berrien

sorreragatik baizik.

Egun nazioartea, estatuak eta nazioarteko erakundeez aparte, beste hainbat eragilez, osatua dago. Subjektu berri hauen esku-hartze maila, eragina... etengabe hazten doan errealtatea da.

Ikuspegi klasiko batetik ere nazioartea izugarri eraldatu da eta maila batean tendentzia kontrasesankorrak bizi ditugu. Estatu ez diren hainbat egitura azpi estatal edo albo estatalak sortu baldin badira ere, horrek ez du inolaz esan nahi estatuen pisu eta indarra galdu dutenik. Aldiz hainbat estatu berri eta hainbat estatu “emergente” deitutakoak ikusi ditugu azken urteetan. Eta hauen eskutik, hainbat dinamika erregional edo intereseko jarri dira martxan, BRICS, G33 ...

Errealitate polo anitz baterantz abiatu da mundua, nahiz eta oraindik argi den Estatu Batuak lehentasuna duen mundu bat izango dela. Beste errealitate baterantz goaz non elkar lerratze globalak aldakorragoak eta arinagoak izango diren. Mundua erronka berriei aurre egin beharrean egongo da.

Fluxu etengabeko mundua izango da gurea: aldakorrek diren harremanak, botere gune anitzak, sortu, batu eta zatitzen diren estatuak, hiri zein erregio

gune boteretsuak, inoiz baino biztanleria mugikorragoa... eta guzti hori inoiz ezagutu dugun garapen teknologiko globalaren pean. Estatuak ez dira jada, eta ez dira izango gehiago, harreman horietako subjektu bakarrak.

Aipaturiko aktore eta errealtate berri guzti horiek ere jokatu dute. Globala eta lokala nahastuko da. Errealitate berriak sortuz (Igor Calzadak aipatzen duen translokaltatea). Mundu oso aldakorrean aurkituko gara. Eta horretara azkar egokitzeko ahalmena izatea gakoa izango da.

Testuinguru horretan Europaren pisua ere erlatiboago aizango da. Batzuek mundu post Europarrean bizi garela diote. Nazioarteko harremanen garai post Europar baten hasieran egon gaitzkeela. Munduko grabitate eremua Europatik Asiarara pasatzen ari da.

Mendeetako borroken ondoren, nagusiki borroka hauen iturri izan diren Frantzia, Alemania zein Britainia Handia berradiskidetuak dira. Baina arrakasta haumugatua da, Europak ez baitu lortu Europako Estatu Batuak izatea. Europak estatuen Europa izaten jarraitu du. Eta ez dirudi hori aldatuko denik.

Gainera egun Europar Batasun-

neko erakundeek pairatzen ari diren demokrazia gabeziaren inguruko kritika nabarmena eta, oro har, europar herritarren aldetik, Europar erakundeekiko ageri desafekzioak Europaren proiektuaren krisia nabamendu dute.

Bestalde, batzuek abertzaletasuna gainbehera zihoala bazioten ere ez dirudi hori horrela denik: batetik eta Europan ematen ari den instituzioen krisia dela eta burujabetzaren aldeko ahotsak indartzen ari dira estatu askotan, eta erakunde azpi estataletatik berriro ere agerian jartzen dira independentzia aldarrien indartzeak (Eskozia, Katalunia, Flandria). Europa, Txinan, Indian, Latinoamerikan nazionalismoak indartzen doaz. Maila horretan aldarri nazionalistak modaz kanpo gelditu zirela ziotenek, globalizazioa eta europar batasunaren eraikuntzaren baitan, ez dirudi asmatu dutenik. Nahiz eta aldarri horiek nazionalismo klasikoaren parametrotan kokatzen ez diren, ez aldarriak ezta kontzeptuak berak ere.

Gainera, globalizazioak, liberalizazioak eta nazioarteko merkataritza integratuagoak joera hauek mugatu baino, areagotu ditu. "Askoren aburuan, inoiz baino indartsuago dago estatua. Globalizazio prozesuaren anabasan eta krisi-garaietan herritarri beharrezkoa duen babesa eskainiko dion eragile bakarra baita". Izan ere, Rubert de Ventós filosofo kataluniarrak dioen bezala: «Saretuta dagoen mundu honetan estatu modernoaren hainbat osagai zaharrituta geratzen ari direnean, [halere], indarraren eta asistentziaren monopolioak ematen dion legitimitatea eta gizarte-ospea mantentzen du estatuak».

# 1.B

## INDEPENDENTZIA EGUN

Independentzia kontzeptuak ere, azken urteetan eraldaketa nagusi bat izan du mundializazio globalizazio prozesu honen ondorioz. Horrela, entitate gain estatalen eskutan zein azpi estatal edo albo estatalen eskutan estatuak boterea galtzen joan dira prozesu zentrifugo baten bidez, Europan batik bat. Egun, ez dago guztiz estatu independenterik, egia da, baina ezin ahortzi ere nazio batzuk besteak baino independenteagoak direla eta hor estatalitateak oraindik ere elementu garrantzitsu gisa jokatzen du.

Hemen independentziaz aritzean independentzia eta subiranotasun kontzeptuak pareko gisa erabiliko ditut, kontzeptu polise-mikoak eta esan bezala aldatuz doazenak. Nazioarteko praktikan halere estatuen arteko erlazioaren printzipio osagarri basikoa dugu hau.

Independentziak ikuspegi nazioarteko legal batetik zeraesan nahiko luke: estatu bat estatu gisa onartua izatea besteengatik eta ondorioz nazioarteko komunitateko partaide gisa onartzea. Independentzia izateak ordezkari-tza diplomatiko onartua izatea eta nazioarteko organoetako kide izatea esan nahiko luke.

Barne independentzia edo burujabetzaren ikuspegitik azalduko genuke bestetik estatu batek duen barne botere estrukturak eratu eta kontrolatzeko gaitasunaz, zeintzuk noski modu efikazean ihardun beharko luketen.

Hiru kontzeptzio hauek egungo errealitatearekin alderatuko gara: estatu independente orok ez dituztela hiruk osoki betetzen, eta beste errealitate azpi

estatal batzuk horietako batzuk maila batean bete ahal dituztela.

Horrela badira independentzia Westfaliar zein burujabetza domestikoa duten errealitatek baina ez daudenak nazioartean errekonozituak. Badira nazioarteko errekonozimendu legala izan baina ez ikuspegi Westfaliarretik ez eta barne burujabetza ikuspegitik independenteak direnak (Libia, Somalia). Eta azkenik Westfaliar burujabetza mugatua duten estatuen kopurua ere maila ezberdinetan oso handia da.

Gainera hasieran esan bezala nazioartean sortu diren hainbat aktore berrik ere higitu egin dute subiranotasun Westfaliar hau, kanpotik eta barrutik. Era berean entitate azpi estatal batzuk burujabetza Westfaliarrak ez duten bezala burujabetza domestikoko maila batzuk eskuratu izan dituzte. Gakoa halere kasu hauetan burujabetza Westfaliar eza da eta horrek ekartzen duen zentrotik esleitutako edo eskualdatutako botereak berriro ere atzerabidez galtzeko aukera ez kontrolatua, botere zentralaren esku badago esleitutako botereak berreskuratzea edo botere hauek kimatzea, gurean gertatu zain den bezala, oinarritzko lege eta abarrenbidez.

Hala ere, Rubert de Ventós filosofoak dioen bezala, «Salbuespenak salbuespen, hobe da estatu minimoa izatea autonomia maximoa baino. Estatua da soberania duen antolaketa politiko bakarra, eta horrek abantaila kualitatiboa ematen dio, oraindik ere, estatu-antolakuntza hartzen duen herriari».

Guzti honekin finean "nazioartea" zein "independentzia" kontzeptuak aldatu direla azpimarratu nahi genuen. Lausotu egin direla. XXI. mendetu zaizkigu. Nahi edo ez nahi, hori da errealitatea eta hor mugitu behar gara. Baina zerbait ez bada aldatu zera



Gure Esku Dagok  
2018ko ekainean  
Erabakitzeko  
Eskubidearen herri  
mandatua Gasteizko  
Legebiltzarrera eraman  
zuen giza katea.



da: nazioarteko errealtate interdependente honetan herriek interdependentsian, burujabe izateko duten gogo eta nahia; itsas mugitu berrien barrena lema eskutan nabigatzeko duten beharra.

Are gehiago Europako tes-tuinguruan, hainbat ikerketek azpimarratu egiten baitute herri txikiak, herritar kopuru baxukoak, aberatsagoak direla oro har, europar media baino aberatsagoak. Beraz askoren-tzat globalizazioa aliatu bat bihurtzen da independentziari dagokionez. Mugen ahultzeak globalizazioaren ondorioz eskala handiko estatuez baliatu beharra gutxiagotu du. Aldiz, estatu konplexu bateko kide izatearen gastuak politika publikoei dagokionez altuak izaten jarraitzen dute, eta, beraz, independentziaren edo burujabetzaren beharra indartzen da.

## 2.

### NAZIOARTEAK IKUSPEGI JURIDIKO ZEIN POLITIKO/GEOPOLITIKO BATETIK ZER ERANTZUN EMATEN DIO INDEPENDENTZIARI.

Lehenik eta behin kontutan eduki beharko genuke adostutako prozesu independentista batek ez duela nazioartean inolako kontrakotasunik sortzen, beti ere prozesu horrek nazioarteko araudia bortxatuko lukeen neurririk ez badu behintzat.

Halere, independentzia, estatu bateko lurralde zati batek, populu batek, estatu horretatik aldentzeko eginiko sezesio adierazpen gisa, ez dago nazioartearengatik ez debekatu ez eta babestua.

Nazioarteak ez die ematen estatu bateko barne entitateei edo herriei ezein banaketarako edo sezesiorako eskubiderik, independentzia deklarazio baten bidez edo bestela. Baina ez du ere nazioarteko legediak estatu baten integritatea edo bana ezintasuna bermatzen estatu horren barne mailako bilakae-rek sezesiora edo estatu beraren desagerpenera eramaten dutenean. Oro har, nazioarteak ez du sezesioa ez baimentzen ez eta debekatzen.

Horrek ez du esan nahi kasu orotan ez duenik debekatzen ez eta nazioarteak babesten duenik edo gustuko duenik sezesioa ematea. Gai hau aztertzerakoan ondorengo elementuak hartu beharko genituzke kontuan: barne zuzenbidearen garrantzi eza, lurralde batasuna, nazioartea eta sezesioa, autodeterminazioa eta sezesio prozesuak eta estatu-en errekonozimendua.

#### **Barne zuzenbidearen garrantzi eza**

Independentzia adierazpen bat aztertzeko unean kontuan eduki behar dugu nazioarteko zuzenbidearen ikuspegitik ez duela garrantzirik adierazpen hori barne zuzenbideedo legaltasunaren baitan zuzenbidezkoa den ala ez. Ez du garrantzirik Espainiar Konstituzioak ezartzen duen batasun zatiezina. Nazioarteko zuzenbidea beste ordenu bat da, eta hor ez du garrantzirik nazio mailako legediak dioena. Nazioarteak inoiz ez du aztertu sezesio egintza bat nazio horretako legalitatearen baitan ematen den edo ez denaren baitan. Horrela balitz inoiz ez litzateke izango nazioarteko legediaren arabera sezesio bat. Horregatik ere ezin da aztertu independentzia adierazpena burutzen duen autoritateak barne

legediaren arabera eskuduntzarik duenaren edo ez duenaren arabera hori egiteko. Kosovoko Asanbladako ordezkariak ez zuten behin behineko administrazioaren arauen arabera inolako eskuduntzarik independentzia adierazpena egiteko.

#### **Lurralde batasun printzipioa**

Printzipio hau aldiz bai da nazioarteko zuzenbidearen printzipioa eta NBE Kartaren 2(4) atalean dator. Printzipio hau, ordea, nazioartean nazioarteko erlazioen babeserako printzipioa da. Ez da berme absolutu bat estatu batek izan den bezala jarrai dezan izaten. Eta ez da aplikatzen estatu baten barnean egon daitezkeen mugimendu sezesionistekiko, Helvetiar Konfederazioak Kosovoko Autogobernurako Erakunde behin behinekoen Erakunde behin behinekoen Independentzia Adierazpenak Nazioarteko Legediarekin bat egiten duen Nazioarteko Justizia Gorteari eskatutako Iritzian dionez.

#### **Nazioartea eta sezesioak**

Ez dugu esan nahi inolaz ere nazioarteak babestu edo sustatzen duenik Estatu baten lurraldearen zatiketa edo mugimendu sezesionistak. Nazioarteak lurralde batasuna (integritatea) babesten du estabilitatearen eta gatazken adoste baketsuen baitan, baita barne gatazkek direnean ere. Baina estatuen banaketa nazioarteko komunitateak babesten ez duen kontua bada ere horrek ez du esan nahi gerta ez daitekeenik edota debekatua dagoenik. Sezesioa ez doa nazioarteko legediaren aurka, Kosovo auzian Nazioarteko Justizia Gorteari azpimarratu duen bezala.

Alde bateko sezesioak izan dira oro har estatuak sortzeko bidea lehenengo gerrate mundiala arte eta 1989 geroztik ere horrela



Eskozian 2014ko irailean egin zen independentzia erreferendum adostua. Argazkian baietzaren aldeko kanpaina ekitaldia. Arg: Alf Melin / CC-BY 2

## D<sub>2</sub>\*

gertatu da. Eta noski historikoki, kasu gehienetan, parte zireneko estatuaren legediaren aurka-ko sezesioak izan dira. Estatu Batuetako 1776 ekouztailaren 4ko Independentzia deklarazioa Britainiar legediaren arabera traizio goreneko delitu bat izan zen. Baina nazioarteko zuzenbidearen arabera ez zegoen debekatua. Sezesioa ez da ez printzipio ez eskubide bat, izate bat baizik.

Sezesioa nazioarteko ikuspegi batetik debekatua dago, hori bai, estatu batekiko sezesio prozesuak nazioarteko legediaren aurkako neurriak baditu berarekin. Sezesioa kanpo eraso edo esku hartze baten bidez ematen bada edo prozesuak oinarritzko giza

eskubideen bortxa badarama berarekin. Kasu horietan nazioartekak, NBERen baitan, ez-errekonozimendu orokorra, adostua izan du erantzun gisa, bai eta batzuetan Seguritasun Kontseiluaren esku hartzea Kartaren VI edo VII kapituluaren baitan.

### Autodeterminazioa eta sezesio prozesuak

Autodeterminazio kontzeptua aldiz nazioartean garatzen joan den kontzeptua da. Hasieran zuen dotrina edo printzipio politikoko kontzeptiotik nazioartean araututako *erga omnes* izaera duen printzipio zein eskubidera pasatuaz.

Horrela, Autodeterminazio eskubidea jaso zen, lehenik eta

behin, modu programatikoan Nazio Batuetako Kartako 1(2) eta 55 artikulua zehazten duen bezala. Bestalde, 1514 erresoluzioak zehaztuko du autodeterminazio eskubidea herri kolonialen eskubide gisa. Eta zehaztuko du, ez dela soilik independentzia izango autodeterminazio aukera, posible dela ere: estatua, asoziazio librea edo estatu baten barruko integrazioa.

Beranduago, 1966ko Giza E eskubide Itunak lehen aldiz definizio legal argi bat ematen saiatuko da, eta giza eskubide gisa definituko du autodeterminazioa lehen atalean.

Era berean, Nazioarteko zuzenbidearen doktrinak sakondu du gai honetan. 2625 Ebazpenari ja-

rraikiz. Estatu batek ez duenean jarduten herritarren eskubide berdintasuna eta autodeterminazio eskubidearen baitan eta ondorioz ez badu jarduten herri osoa ordezkatzeko duen gobernu gisa, arraza, sinesmen edo kolorerik kontuan eduki gabe; kasu horietan autodeterminazio eskubidea emango da ere.

Ondorioz doktrinaren gehiengoaren arabera herri bati bere barne autodeterminazio eskubidea sistematikoki eta bortizki bortxatuko balitzaio autodeterminazio eskubidea ere onartuko litzaioke. Hau litzateke *remedial right* gisa onartzea autodeterminazioa.

Honetaz gain, azken urteotan autodeterminazio kontzeptuaren garapen bat egon da ere barne autodeterminazio eskubide gisa; hau da sezesioraino iritsi gabe herriek izan dezaketen barne autodeterminaziorako eskubidea estatu baten barruan.

Ezin ahanzi dugu, finean, herrien autodeterminaziorako eskubidea nazioartean arau bihurtzen (normatibizatzen) doan eskubidea dela, beti ere borrokatzen duten herrien arrakastaren arabera. Alegia, autodeterminazio eskubidea ez da nazioarteko arau bihurtzen bat-batean herri kolonizatu eta okupatuentzat, baizik eta hirugarren munduko herrien borroka gogorren ondorioz. Eskubide historiko guztiekin berdina gertatzen da.

### **Estatuen errekonozimendua**

Independentzia adierazpena ez badago ere nazioartean debekatua (arestian aipaturikoez aparte) horrek ez du esan nahi noski Independentzia adierazpenak estatu horren errekonozimendua dakarrenik berarekin.

Estatu independente baten izatea definitzeko irizpideei dagokionez, Montebideoko Konbentzioa, Estatuaren Eskubide

eta Betebeharrei buruzkoa (1933) delakoan onartu dira unibertsalki eta egun nazioarteko printzipio gisa hartzen dira. Irizpideak hauek lirateke: populazio permanente bat, lurralde definitu bat, gobernu bat, eta hirugarren estatuekin harremanetan sartzeko gaitasuna.

Argi dago alor horretan estatuen errekonozimendua lehen mailako elementu diplomatiko politikoa bihurtzen dela, eta, beraz, gai horrek estrategia eraginkor baten definizioa eskatzen duela errekonozimendua lortu nahi duten estatuen aldetik.

## **3.**

### AURRERA BEGIRAKO

### IRAKURKETAK ETA

### ONDORIOAK

Elementu hauek kontuan hartuta, hainbat ondorio jaso daitezke:

-Autodeterminazio eskubidea egun nazioartean okupaziopean zein errealitate kolonial direnei erantzuten die batik bat (gehi *remedial right* kasuak).

-Garatua dago ere barne autodeterminazio kontzeptua, batez ere, herri indigenei zein gutxiengoei dagokienez.

-Sezesioa, salbuespeneko kasuak salbu (*remedial right*), ez da nazioarteko legediaren arabera eskubide orokortu bat.

- Sezesioa gertaera bat da. Errealitate bat, zeinari erantzun bat eman beharra dagoen modu arrazional batean, sistema demokratiko batean bagaude behintzat.

-Hoberena eta logikoena, beraz, horrelako kasu bati irtenbide negoziatu bat ematea da. Demokrazia, hitza, zuzenbide estatua,

**“Askorentzat globalizazioa aliatu bat bihurtzen da independentziari dagokionez.**

**Mugen ahultzeak globalizazioaren ondorioz eskala handiko estatuez baliatu beharra gutxiagotu du”**

**“Ezin ahanzi dugu, finean, herrien autodeterminaziorako eskubidea nazioartean arau bihurtzen (normatibizatzen) doan eskubidea dela, beti ere borrokatzen duten herrien arrakastaren arabera.”**

**“Nazioartea, aldiz, Euskal Herria bezala, landu beharreko eremua dugu eta bere erantzuna desberdina izango da gure herrian ezartzen den prozesuaren arabera”**



**“Nazioartean arrakastatsuki eragiteko gaitasuna eta plana zehaztea beharrezkoa izango da edozein prozesu independentistarentzako.”**

**“Nazioarte mailan konplizitateak edo gutxienik ez aurkakotasunak lantzen saiatu beharko da, inguruneko interes geopolitikoak eta geo-estrategikoak kontuan edukiz eta hauei positiboki erantzuten, horretarako beharrezko estrategiak definitu eta garatuz.”**

giza eskubideak eta gutxiengoen babesa kontuan hartuaz.

-Maila horretan sezesio demandaren seriotasuna nazioartean kontuan hartuko litzateke: eskaria modu sostengatuan, serio eta koherente batean mantendu den ala ez; gehiengo argi baten babesa izatea, homogeneoa izatea, negoziatzeko prestutasuna izatea eta noski lurralde eta biztanleen nolabaiteko kontrola izatea.

Nazioarteko komunitateari buruz aipu batzuk egitea komeni da:

- Nazioarteko komunitatea kontserbadorea da, orohar, eta ez du nahi status quo-aren aldaketarik. Desestabilizazio politiko, sozial edo ekonomikoak ekiditearen aldekoa izango da orohar.

- Nazioartea oraindik orain nagusiki estatuen nazioartea da, non mugen aldeazintasunak pisu izugarria duen.

- Bakea eta estabilitatea dira batik bat mantendu nahi direna.

- Ikuspegi orokor batetik begiratuta nazioarteko komunitatea ez da izango aldebakarreko sezesioaren aldekoa, sezesioak aurreko guztia jasotzen duelako gehienetan.

-Geopolitikak, kontagio efektuak eta abarrek zeresan handia izango dute ere kontestu honetan. Maila horretan, Espainiar estatua izaera ertaineko potentzia bat dela ezin ahantzi.

- Sezesioa beti azken errekurtsio gisa ikusiko du nazioarteak, eta hor garrantzi berezia hartzen du elkarrizketak edo elkarrizketa ezak.

- Elkarrizketa, negoziaketa eta *compromise*-aren aldeko posizioa izango du, eta horretarako kualitatiboki dagoen posizio indarra inportantea izango da.

- Demokrazia liberaletan azken boladan ematen ari den erabakitze eskubidea legitimazio demokratikoa deitu izan dena-

ren kontzeptua, mugatua dago eta gaia batik barne afera gisa definitu ohi da.

Beraz, independentzia prozesua arrakastatsua izango bada, elementu guzti horiek kontuan izan beharko dituela, eta, beraz, nazioartean arrakastatsuki eragiteko gaitasuna eta plana zehaztea beharrezkoa izango da edozein prozesu independentistarentzako.

## 4.

### ZEINTZUK LIRATEKE INDEPENDENTZIA PROZESU BATI BEGIRA EUSKAL HERRIAREN ERRONKAK. HAINBAT HAUSNARKETA.

Aurreko atalari jarraikiz hainbat ondorio baditugu jada:

- Nazioarteko legediak ez du orohar babesten independentzia ez eta ukatzen ere. Independentzia prozesuak nazioarteko legediaren arabera izan daitezke edo gutxienik ere nazioarteko legediaren ez aurkakoak izan daitezke. Prozedurak badu zerkusia nazioarteak erantzuteko unean, hori bai.

- Nazioarteko legediari ez zaio egin behar jakiteko gure herriaren independentzia babestua dagoen edo ez. Afera edo gakoa ez dago hor.

- Nazioartea, aldiz, Euskal Herria bezala, landu beharreko eremua dugu eta bere erantzuna desberdina izango da gure herrian ezartzen den prozesuaren arabera, zeinak noski ezinbestean nazioarteko aldagaia edo elementua kontuan izan behar duen definitzerakoan eta lantze-

rakoan.

-Eta hor nazioarteko praktikak bai ematen dizkigu pista edo arau batzuk:

\* ikuspegi legal batetik, nazioartean baloratuko da, legitimitateari begira, sezesioa deklaratzeko duen subjektuak lurralde, populazio eta instituzioen kontrola mantentzen duen baina baita ere eskariak legitimitate demokratikoa duen.

\* ikuspegi geopolitiko batetik, lurralde hori dagoen eremu geopolitikoko bake eta egonkortasuna, politiko, geopolitiko zein ekonomikoa aztoratzen duen edo ez, eta lurralde horren garrantzia.

Funtsean, prozesu independentista fase batean bederen alde bakartasunetik sustatzen bada, estatuak prozesu adostu bat ez duelako onartzen hasieran, ezinbestean nazioarte mailan konplizitateak edo gutxienik ez aurkakotasunak lantzen saiatu beharko da, inguruneko interes geopolitikoa eta geo-estrategikoak kontuan edukiaz eta hauei positiboki erantzuten, horretarako beharrezko estrategiak definitu eta garatuaz.

D<sub>2</sub> \*



2017ko ekainean Montjuïc-en [Bartzelona] erreferendumaren aldeko ekitaldi jendetsua.  
Arg: Amadalvarez / Wikimedia Commons





**5 EFTA/EMLE.** Merkataritza liberako erakundea da, Europako lau estaturen artekoa: Islandia, Liechtenstein, Norvegia eta Suiza. EBrekin lotura du baina estatu hauek ez dira EBko kideak. EFTAkideen artean industria salgaien salerosketak errazten ditu; ekonomiaren egonkortasuna eta hazkundea lortzea du xedea. Erakundearen egoitza nagusia Genevan dago. Erabakiak estatu kideetako gobernuek aplikatzen dituzte, banaka, EFTAk ez baitu estatuen gaineko ahalmenik.

**6 NORDIC COUNCIL/IPARRALDEKO KONTSEILUA.** Europako Iparraldeko herrialdeen parlamentuek eta gobernuek osatu duten lankidetzarako erakundea da. 1952an abian jarri eta merkataritza, segurtasun soziala, herrialdeen arteko mugikortasun librea, ingurugiroa, kanpo-politika, zerbitzuak eta garraibideetako kooperazioa adostu zuten. Iparraldeko Kontseilua gaur egun ipar-kulturaren aldeko kontseilu bilakatu da. Ondorengo estatuak eta estaturik gabeko nazioek osatzen dute: Danimarka, Finlandia, Islandia, Norvegia, Suedia, Faroe, Groenlandia eta Alan uharteak nahiz eta denek erabaki ahalmen bera ez izan.

**7 VIXEGRAD TALDEA** edo V4. Hungariak, Poloniak, Txekiak eta Eslovakiak osatzen dute. 1991an sortu zen. Estatu hauen arteko lankidetzaren helburu, garai hartan. Gaur egun Europar integrazioa azkartzeko bide gisa segitzen du lankidetzaren horrek.

**8 GUAM.** Garapen ekonomiko eta demokratikorako erakundea. Sobietar Batasuneko lau errepublika ohiek osatzen dute: Georgia, Ukraina, Azerbaijan eta Moldavia.

**9 ASANBLADA BALTIKOA (BA):** Baltikoko eskualdeko erakundea da; Estonia, Lituania eta Letoniako gobernuaren arteko lankidetzaren sustatzen du.

Politika ekonomiko eta sozialei buruzko jarrera amankomunak izatea du helburu. Erabaki hauek ez dira ordea lotesleak. 1991n sortu zen eta egoitza Rigan, Letonian dago.

**10 BENELUX** izenarekin Belgika, Herbehereak eta Luxenburgok osatzen duten batasun ekonomiko eta aduaneroa izendatzen da.

**11 CEFTA.** Zentro-Europako merkataritza liberako akordioa. 1991n akordioa sinatu zenean Europar Batasunetik kanpo zeuden Zentro-Europa eta Europa Hegoekialdeko estaturen arteko merkataritzarako akordioa izan zen. Gaur egun EB-kide izateak galeratzen du CEFTAn egotea. 2013tik Albania, Bosnia Herzegovina, Mazedonia, Moldavia, Montenegro, Serbia eta UNMIK- Kosovo ordezkatzuz- partaide dira.

**12 EEA.** Europako ekonomia gunea. EBko kide ez diren Islandia, Liechtenstein eta Norvegiari EBko merkatu Bakarreko baldintzez gozatzea ahalbidetzen die. 1994an sartu zen indarrean eta sinatzaileak Europar Batasuneko Estatuak eta aipaturiko hiru estatuak izan ziren.

**13 EUROGUNEA.** Euroa erabiltzea onartu duten EBko herrialde kideen gunea da. Monetaren inguruko batasuna eratu dute eta euro sistema egin dute moneta-agintari gune honetan. Europako Banku Zentrala da 15 herrialde hauen politika monetarioaren arduraduna.

**14 THE COMMON TRAVEL AREA (CTA):** Bidaiatzeko gune amankomuna. Erresuma Batuak, Irlandak, Man Uharteak eta Channel uharteak osatzen duten mugarik gabeko gunea da. Itsas Gairadiko Britandiar lurraldeak ez dira parte. Gune honek lurraldeen arteko migrazio kontrolerako lankidetzaren dakar.

**15 EUROPAR BATASUNA (EB).** 28 estatuk osatzen duten batasun politiko eta

ekonomikoa da. Europar Batasunak barne merkatua bakarrik garatu du legedi sistema estandarizatu baten bidez; lege horiek estatu-kide guztiei eragiten diete legearen esparruan, eta soilik esparru horretan, estatuak hala erabakita. Europar Batasuneko politikak pertsonen, produktuen, zerbitzuen eta kapitalaren mugimendu askea bideratzea du helburu. Justizia komuna eta politika bateratuak daude gaur egun merkataritza, nekazaritza, arrantza eta eskualde garapenari dagokionez. 1999an Euro txanpona sortu zen, 2002tik EBko 19 kidek erabiltzen duten txanpon bateratua.

**16 EUROPAR BATASUNEN ADUANA BATASUNA (EUCU).** EBko kideekin batera Monako eta Erresuma Batuko lurralde kolonizatu batzuen arteko aduana batasuna da. EBko lurraldeak izanik, geografikoki urruti daudenak ez dira batasun honetako kideak. Haatik, EBko kide ez diren hainbat lurralde parte dira: Andorra, San Marino eta Turkia (salbuespen batzuekin). 1958tik dago indarrean. Partaide guztiak artean ez dago arantzelarik. Bai ordea Batasun honetatik kanpo daudenentzako. Batasun honek Munduko Merkataritza Elkartearen (MME) EB ordezkatzeko du.

**17 EUROAREN ERABILERARAKO AKORDIOA** edo The European Monetary Agreement. 1955ean sinatu zen. 1972an birformulatu zen eta ekonomia eta garapenerako lankidetzareko akordioa da hau ere. Alde anitzeko akordio sistema zen. Nazioarteko Diru Funtzak luzaz gainditu ditu bere helburuak.



# Tiempo de Cerezas



Gorka Elejabarrieta.  
*Responsable Nacional de  
Relaciones Internacionales.*

**“O construimos una vía  
democrática a la independencia  
o tendremos que construir la vía  
independentista a la democracia”**

*David Fernández*

Las compañeras de la izquierda abertzale Esther Agirre y Elena Beloki con los compañeros del Sinn Féin Martin McGinness y Gerry Adams en 1998.





## “La mitad de los Estados miembro de la Unión Europea han conseguido la independencia en el siglo XX. El siglo XXI va a ver de nuevo a viejas naciones convertirse en jóvenes estados.”



**R**esulta innegable que muchos partidos políticos independentistas han crecido de manera muy importante en muy pocos años y de forma paralela. Partidos como el Sinn Fein irlandés, los escoceses Scottish National Party (SNP), el partido Republican Feroes o la Nieuw Vlaamse Alliantie (N-VA) flamenca entre otros han pasado a convertirse en los partidos más votados en sus respectivas comunidades. Como bien sabemos, el tener partidos o fuerzas políticas autonomistas o independentistas gobernando una nación sin estado no asegura que haya procesos en esa misma dirección. Pero, lo verdaderamente destacable en mi opinión es que además unos cuantos de estos gobiernos tienen una clara agenda independentista. Escocia, Flandes o Catalunya por ejemplo están inmersos en procesos de esas características, procesos por otra parte muy diferentes entre ellos. La mitad de los estados

miembro de la Unión europea han conseguido la independencia en el siglo XX. El siglo XXI va a ver de nuevo a viejas naciones convertirse en jóvenes estados.

Otra característica que no ha pasado inadvertida y resulta en mi opinión determinante para nuestro contexto y sobre todo para nuestra lucha, es el hecho de que en el ámbito europeo las viejas reivindicaciones de las naciones sin estado se están dirimiendo hoy de forma dialogada, acordada y sobre todo pacífica y democrática. En esta eterna batalla por la autodeterminación de los pueblos, parece que la vía democrática es la que se va poco a poco imponiendo. Cabe entender esto también, como un proceso y no como un hecho. Pero resulta innegable que ha habido una evolución en ese sentido. Difícilmente hubiese aceptado Margaret Thatcher un referéndum en Escocia hace apenas 30 años, no olvidemos tampoco que cuando las Islas Feroe votaron

democrática y pacíficamente a favor de independizarse en 1946 el gobierno danés no solo no lo aceptó, sino que aplicó un 155 de la época en toda regla. Y sin embargo, a nadie se le escapa que hoy en día Escocia y el norte de Irlanda, Flandes, las Islas Feroe o Groenlandia son naciones que decidirán sus destinos de manera democrática y acordada con los estados a los que pertenecen. Es esta democratización de las relaciones entre las naciones sin estado y los propios estados matrices la que hace si cabe más burda e insostenible la actitud antidemocrática del estado español. A diferencia de sus vecinos europeos, el estado español no solo no apuesta por deshacerse de su déficit democrático, sino que avanza imparable hacia la completa turquización de su política y sociedad. Ante las políticas de seducción que se van imponiendo en Europa el estado sigue apostando por el garrote y la imposición. Parece eviden-

te que a corto y medio plazo al menos, el estado español no va a sumarse a esta ola democratizadora (respecto a este tema) que se va imponiendo poco a poco en parte importante del resto de Europa. Sin embargo, resulta interesante apuntar a la necesidad de no abandonar nunca a nivel discursivo al menos este llamado constante a la necesaria democratización del estado y la necesidad en ese sentido de que este reconozca el derecho a decidir de las naciones sin estado que lo componen. O dicho de otra manera, el insistir una y otra vez en los diferentes ámbitos de la comunidad internacional en la necesidad de acordar un referéndum pactado como solución democrática al conflicto que enfrenta a Euskal Herria (y Catalunya) y el estado Español, y la negativa segura que este estado dará a esta medida democrática e internacionalmente reconocida, es en mi opinión una de las razones que puede llevar a aceptar un referéndum unilateral y a reconocer su resultado a una parte de la comunidad internacional. 'La vía democrática a la independencia es la que nos puede traer la vía internacional a la independencia'.

Otro importante factor a tener en cuenta es el hegemónico. Irlanda, Escocia, Flandes y Catalunya son en mi opinión los procesos independentistas más avanzados en estos momentos en Europa. En los tres primeros no existe pugna electoral seria dentro del independentismo, el SNP, Sinn Fein y la N-VA son los partidos hegemónicos sin discusión. En Catalunya sin embargo han sido capaces de desarrollar un proceso independentista a pesar de esa lucha interna entre las diferentes familias independentistas, y ha sido a su vez esa pugna electoral entre partidos independentistas, la lucha por la hegemonía, la que ha causado y está causando también algunos

de los obstáculos más dolorosos al propio proceso. Alcanzar esa hegemonía o saber gestionar adecuadamente la falta de hegemonía, un escenario de competencia electoral, dentro de un proceso de esas características es un factor clave.

La actitud de la comunidad internacional, de Europa en particular, ha sido muy similar en los procesos escocés, flamenco y catalán. Ninguno de estos procesos ha llegado al final, no se ha materializado, y por lo tanto ninguno ha exigido un reconocimiento o falta de reconocimiento expreso de la comunidad internacional. Todavía no se ha hecho la prueba del algodón. No creo que esa actitud conservadora y favorable a los intereses de los estados matrices durante los procesos y antes de su materialización haya sorprendido a nadie. Y tampoco creo que se pueda llegar a la conclusión de que Europa y sus estados no reconocerán nuevos estados a futuro. Tal y como dijo el Británico Lord Palmerston refiriéndose a la política internacional de Inglaterra "es una política equivocada el suponer que este país o aquel otro puedan etiquetarse como el aliado eterno o el perpetuo enemigo de Inglaterra. No tenemos aliados eternos, y no tenemos enemigos perpetuos. Nuestros intereses son eternos y perpetuos". Se puede deducir que los independentistas de las naciones sin estado europeas tenemos intereses comunes, y qué duda cabe que el trabajo conjunto en favor de esos objetivos puede ayudarnos tanto a unos como a otros. Articular y coordinar parte de nuestra política internacional con otras naciones sin estado, sobre todo la encaminada a buscar que los pasos democratizadores que a este respecto están dando algunos estados miembro se den también a nivel de instituciones europeas, puede resultar clave en el futuro. Es por todo ello que hay que apostar de ma-

**“En esta eterna batalla por la autodeterminación de los pueblos, parece que la vía democrática es la que se va poco a poco imponiendo.”**

**“Ante las políticas de seducción que se van imponiendo en Europa, el Estado español sigue aportando por el garrote y la imposición.”**

**“[La sincronización de procesos] puede ser la palanca, la ventaja táctica que nos ayude a alcanzar nuestros objetivos en esta fase histórica.”**



La conocida activista estadounidense Angela Davis apoyó la campaña Free Otegi, Free Them All. En la foto en la visita que hizo a la cárcel de Logroño. No le dejaron visitar a Otegi.





Arnaldo Otegi, Gorka Elejabarrieta y el refugiado Josu Lariz con Norma Morroni, madre de Fernando Morroni muerto en la masacre de Filtro.



Arkaitz Rodriguez y Cuauhtémoc Cárdenas.

Asier Altuna con la ex-presidenta Dilma Rouseff.

La visita de las Europarlamentarias al parlamento Navarros, con EH Bildu.

Urko Aiartza y Jeremy Corbin, el líder del Partido Laborista del Reino Unido.

Ander Larunbe con Michelle O'Neill, vicepresidenta del Sinn Fein.

Arnaldo Otegi y Gorka Elejabarrieta, en casa de Pepe Mujica y Lucia Topolansky.

D4\*

nera decidida por incrementar y fortalecer los espacios de colaboración con otras naciones sin estado, sobre todo europeas.

Ese mismo ejercicio resulta necesario con las naciones sin estado de los estados que nos niegan nuestros derechos. Sincronizar procesos, campañas y acción política con corsos y kanakos por ejemplo de cara a París, o con catalanes y gallegos entre otros de cara a Madrid puede resultar determinante en la nueva fase que se abre. Esa puede ser la palanca, la ventaja táctica que nos ayude a alcanzar nuestros objetivos en esta fase histórica. La democra-

tización del estado a través del dialogo, negociación y acuerdo como fase previa al ejercicio del derecho a decidir nuestro futuro libremente parece agotada, por lo menos a corto y medio plazo. La vía unilateral no pactada, si bien no agotada todavía, ha demostrado algunas limitaciones y dificultades en el caso catalán. La sincronización, articulación y cooperación conjunta de cara a Madrid y Bruselas puede ser la llave de la nueva fase.

La creación de marcos y espacios de debate, discusión y acuerdo entre las fuerzas independentistas a nivel de estado,

conjuntada con una praxis parcialmente común puede fortalecer nuestros procesos, entendiendo a su vez que cada uno de los procesos se encuentra en un momento diferente y que es a su vez único, por lo que no existen recetas que se puedan aplicar de igual manera en todas partes. Esto mismo pero ampliado a nivel europeo y de cara a Bruselas puede trasladarse en una especie de liga de las naciones sin estado que de manera conjunta trabaje aquellos intereses comunes y comprenda y respete aquellos que son específicos.



# ZERGATIK DA ESKUIN MUTURRAREN PRESENTZIA HAIN NABARMENA?

“No acepten lo habitual como cosa natural pues en tiempos de desorden sangriento, de confusión organizada, de arbitrariedad consciente, de humanidad deshumanizada, nada debe parecer imposible de cambiar”

*Bertolt Brecht*

Elena Beloki.  
Iratzar Fundazioko kidea.





